# ttipi ttapa

2005eko ekainaren 16a • XXV. urtea

400



## Hemen dira udako herrietako bestak

GB

Sanjuanak Arizkunen eta Saldiasen, Sanpedroak Donezteben eta Erratzun. Udarekin batera indartzen hasiko da herrietako besten zurrunbiloa.



## Iñaki Larralde lesakarra ASPEn

28

Maiatzaren 29an garaipenarekin egin zuen debuta profesionaletan Iñaki Larralde aurrelari lesakarrak. ASPE enpresarekin hiru urteko kontratua sinatu du.

04

AIMAR OLAIZOLA

# Buruz buruko txapela lehen aldiz Goizuetan




Argazkia: Maitane Apezetxea




# Negozio-asmoren bat izan eta zure enpresa sortu nahi baduzu,

**GAZTEMPRESA** tratamendu pertsonalizatua eskaintzen dizugu hori sortu aurretik eta sortu ondoren, finantzaketa malguarekin eta lehentasunezko baldintzetan.

Zoaz Euskadiko Kutxaren edozein bulegora edo bidali zure e-maila helbide honetara:

navarra@gaztempresa.com

www.gaztempresa.com

## GAZTEMPRESA

gure laguntza zure proiektuarentzat

Laguntzaileak

cein

CEDERNA GARALUR

MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVA

GAZTEMPRESA

Euskadiko Kutxaren Gizarte-Egintza Nafarroan

**Alberto Agirre Iturria** Gaztempresa ekimenaren eskualdeko koordinatzailea

# «Azken 4 urteotan Nafarroa osoan 165 enpresa eta 297 lanpostu sortzen lagundu dugu»

Gaztempresa Fundazioa Euskadiko Kutxaren ekimena da eta bere helburu nagusia enpresa berriak sortuz enplegua laguntzea da. Bi lan ildo nagusi ditu: autoenplegu-plana alde batetik eta proiektu sozialekin elkarlana bestetik. Gai horien inguruan solastu dugu Alberto Agirrerekin, Gaztempresak gure eskualdean duen koordinatzailearekin.



Ezkerretik eskuinera Joxe Jubera, Fermin Lizarraga, Jesus Etxart eta Alberto Agirre, Lesaka, Leitza, Doneztebe eta Berako Euskadiko Kutxako zuzendariak.

**Zer da Gaztempresa? Zeintzuk partehartzen dute ekimen honetan?**

Gaztempresa Fundazioa Euskadiko Kutxak sortua da eta bere misio edo xederik nagusiena autoenpleguaren bitartez enplegua sortzen laguntzea da, eta bidebatez, bere enpresa sortzera animatzen diren pertsonei edota enplegu-egonkorrik ez dutenei zuzendua dago batez ere. Bestalde, gizarteratzea helburu duten proiektuak ere laguntzen ditugu. Helburu horren alde ari gara Euskadiko Kutxak Nafarroan dituen bulego guztiak, eta Nafarroako beste erakunde batzuk ere laguntzaile ditugu: CEIN, Gaztelan, ANEL, Iruñeko Udala eta Cederna-Garalur.

**Eta zeintzuk dira helburuak?**

Helburu kuantitatiboetan sartu gabe, onartuak ditugun balioak dira kooperazioa, partehartzea, erantzunkizun soziala eta berrikuntza.

**Nolako laguntza eskaintzen du Gaztempresak?**

Sustatzaileari arlo desberdinetan eskaintzen diogu laguntza; bideragarritasun plana egiten, beharrezkoak dituen harremanak egiten eta baita finantza beharretan ere, 60.000 euro bitarteko maileguekin Euribor-ean, komisiorik gabe, eta interesaren gainean %50eko subentzioarekin.

Dena den, sustatzaileek hala eskatuta, Gaztempresako produktu berriak atera ditugu. *Leasing Gaztempresa* da horietako bat eta baldintza bereziak ditu. Gainera proiektuen segimendua ere egiten dugu, batez ere, sustatzaileei ateratzen zaizkien beharrei egokitzeko asmoarekin.

**Zeintzuk hartzen ahal dituzte laguntza hauek? Nolako baldintzak bete behar dituzte?**

Norbere enpresa sortuz negozio idea bat aurrera atera nahi duten nafar guztiek dute laguntza hauek hartzeko aukera. Halere, bada nahitaezko baldintza bat: bideragarritasun ikerketa lehenago aipatu dudan erakunde laguntzaile horietako batek egina egotea. Hori bai, sortu nahi den enpresaren jarduera nahi dena izaten ahal da, ez da eskatzen enpresa berritzailea izatea, eta abar.

**Zenbat enpresa sortu dira Nafarroan Gaztempresa abiatu zenetik?**

2000ko ekainetik 2004ko abendura 165 enpresa jarri dira lanean, eta enpresa horietan denen artean 297 lanpostu sortu dira.

**Nolako profila du Gaztempresa ekimenean parte hartzen duen pertsonak?**

2004ko datuei dagokionez, 42 enpresa sortzen lagundu genuen eta horien bitartez 65 lanpostu sortu ziren. Sustatzaileen batez besteko adina 30 urtekoa da, erdiak emakumeak eta beste erdiak gizonezkoak. 22 sustatzaile langabezian zeuden eta 20 beste enpresa batean ari ziren lanean eta bere enpresa sortzea erabaki zuten. Proiektuen profilari dagokionez, %61 zerbitzuen sektorekoa da (informatika, ostalaritza, kirola,...), %30 merkataritzakoak (elikagaiak, opariak...) eta %9a industria (zurgintza...).

**Nola animatuko zenuke pertsona bat autoenpleguarekin saiatzera?**

Enpresa sortzeak duen zailtasunen gainetik, alde positibo ugari ditu: arlo berritzaileetan hasteko aukera, zeure erabakiak hartzeko independentzia, zeure proiektuaren alde aritzeak ematen duen satisfazioa. Gure laguntza izanen dute lan horretan.

## Nora joan, non galdetu

Gaztempresa 1990eko urteetan sorturiko krisi egoeran Aurrezki Kutxako (Euskadiko Kutxako) kide talde batek izan zuen erreakzio naturalaren ondorioz eratu zen.

2000. urtetik gaur egun arte 165 dira abian jarri diren enpresak eta 297 lanpostu sortu dira enpresa horietan.

Gaztempresari buruzko egozein argibide jasotzeko, interesatuek Euskadiko Kutxaren bulegoetara edo Erakunde laguntzaileetara jo edo Interneteko *www.gaztempresa.com* orrialdea bisita dezakete. Gurekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa navarra@gaztempresa.com da.




**Ekainaren 5ean, jendez lepo zegoen Donostiako Atano III pilotalekuan jantzi zuen Aimar Olaizola goizuetarrak esku pilotako txapelik preziatuena, buruz buruko zapela. Martinez de Irujo iazko txapeldunari eta faboritoari 18-22 irabazi zion, emozioz betetako partida batean. Olaizola II.ak ez zuen ongi hasi partida, bere urduritasunak lotuta eta Irujoren jokuan galduta, 12-5 eta 15-6 galtzen joan zen. Baina pixkanaka jokuan sartzen joan zen eta markagailuari bueltа ematea lortu zuen, 17-21. Irujok beste tantu bat egin zuen, baina hondarrekoa Aimarentzat izan zen. Aurretik, lau terdian bi txapel irabaziak baldin bazituen ere, dudarik gabe, txapelik handienaren jabe egin da orain Aimar Olaizola. Profesionaletako txapel ofizial guztiak eskuratzeko binakakoa falta zaio Goizuetako aurrelari finari.**

ARGAZKIA: DIARIO VASCO
**Aimar Olaizola gustora, buruz buruko txapela jantzi ondotik.**

AIMAR OLAIZOLA, BURUZ BURUKO TXAPELDUN

# Esku pilotaren zapelik handiena Goizuetan da lehendabiziko aldiz

**Aitor AROTZENA**

Duela bi urte 22-7 galdu zuen Aimar Olaizolak Patxi Ruizen kontra, buruz buruko bere lehen finalean. Txapelketa bikaina egin zuen goizuetarrak, baina finalaurreko ligaxkan lesio larria izan zuen. Itxuraz, lesio hura gaindituta ekin zion finalari, baina berehala mina somatu eta ez zuen partida hura behar bezala jokatzerik izan. Gainera, uda osoa galdu zuen eta komunikabideek eta hainbat pilotazalek, ez zuela inoiz orduko maila berreskuratuko segurtatzen zuten. Aimarrek, bere aldetik, lau terdiko txapelketa irabazita, lesio hori gainditua zuela eta eskuin besoa erabat sendatua zeukala zioen. Baina oraindik zerbait gehiago behar zuten komunikabide eta pilotazale horiek. Oraindik gehiago, finalaren hasieran, Aimar Irujoren menpe zegoenean. Joan den urteko txapelketaren finalerdiko ligaxkan 22-1 irabazi zuen Iberokoak eta aurtengo finala ere bide beretsutik hasi zen. Irujok bere jokua egiten zuen eta tantuak ongi bukatzen zituen. Aimarrek

dominatzeko aukera zuenean, aldiz, ez zuen pilota probexten eta tantua Iberokoaren alde erortzen zen. Baina dena galdua ikusi zuenean, 15-6 galtzen ari zenean, Asier anaiak aulkitik bota zion errieta barneratu, bere dohainak kantxa gainean jarri eta buelta eman zion markagailuari goizuetarrak. Horregatik, buruz buruko txapela jantzita *«aho asko itxiarazi ditudala»* zioen Olaizola II.ak. *«Duela bi urte suerte txarra izan nuen besoko lesioarekin eta jendeari erakutsi nahi nion lehengo Aimar bera nintzela. Uste dut orain lortu dudala. Edozein pilotarirentzako pozik handiena mano-manoko txapela irabaztea da. Denek amets egiten dugu berekin eta azkenean lortu dut».* Horregatik txapelak ere eskaintza berezia izan zuen, urte hauetan partiduz partidu bere ondoan izan diren eta finala irabazi bezain abudo Aimar zanpatu zuten *«Imanol, Ernesto, Joxe, Joseba eta Aitorrentzat».*




ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

**Argazkian, txapela jantzi eta biharamonean ageri da Aimar bere herrian, urte osoan soinean eramanen duen kamiseta gorriarekin.**

### MTNEZ DE IRUJO: «AIMARREK MIN EGIN DIT SAKEAREKIN»

Martinez de Irujo, noski, ez zegoen kontent eskuz banakako finala galduta. Duela bi urte pilotari profesional gisara debutatu zuenetik ez zuen partida bakar bat ere galdu buruz buru. Patxi Ruiz bikain baten kontrako finalerdian, 15-20 galtzen zihoala irabazi zuen partida ikusita, garaitezina zela zirudien Iberokoak.

Finala ere, kasik irabazia ikusi zuen eta galdu ondotik bere buruarekin *«amorratua»* baldin bazegoen ere, kiroltasunez onartu zuen Aimarren garaipena: *«Ez dut uste nik galdu dudanik finala. Aimarrek gehiago arriskatu du bigarren zatian, dena atera zaio eta niri deus ere ez. Berak ongi jokatu du eta gainera, sakearekin asmatu egin du, min egin dit».* Oraindik gaztea dela eta final asko jokatzea espero duela adierazi zuen Irujok: *«Nahi nuke urtero buruz buruko finala galduko banuke! Horrek esan nahiko luke onenen artean nagoela. Aurtengoa gustoen aritu naizen finala izan da».*

## AIMAR OLAIZOLA DUELA 14 URTE TTIPI-TTAPAN

Aimar Olaizolak ehundaka elkarrizketa eman izanen ditu honez gero komunikabide ezberdinetan, baina seguruenik lehendabizikoa ttipi-ttapa aldizkarian irakurri ahal izan zen. 1991. urteko abenduaren 19ko 76. zenbaki hartan, hamabi urte bete baino lehen 25 txapel jantzi zituen pilotari ttiki baten berri ematen zen. Hilabete batzuk lehenago, Nafarroako Interpueblos txapelketa irabazi zuen Goizuetarekin Lesakaren kontra. Bera alebinetan aritu zen eta Asier anaia jubeniletan. Ttipittapan argitaratu zen elkarrizketan Aimarrek aipatzen zuenez, zutik hasi orduko hasi omen zen pilotan *«gehien bat Goizuetan beste aukerarik ez dagoelako, baina etxeko giroak ere eragin haundia izan zuen. Esan daiteke nere familian pilotaz besterik ez dela hitzegiten eta nere anai zaharrenak ere hontan aritzen direnezez dut zalantzarik izan zein kirol praktikatu nahi nuen erabakitzerakoan».* Olaizola ttikiak zuen afizioaren erakusgarri, ia egunero aritzen omen zen pilotan: *«Edozein momentu aprobetxatzen dut hortarrako, errekreoak, ilunabarrak, oporrak edo asteburuak. Hortaz gain azken aldi honetan gehiegitan ez bada gertatzen ere, entrenamentu ofizialak izaten ditugu, baina neretzat entrenamendurik hobena torneoak jokatzea da».* Elkarrizketa agurtzeko, *«orain artekoak baino garrantzi gehiagoko txapelaren bat lortzen duenean beste elkarrizketa bat egingo geniola ziurtatuta agurtu genuen Aimar»* zioen kazetariak. Aukera ugari izan dira, profesionaletako debuta, lau terdiko bi txapelak eta bertze hainbat... Handiena, ordea, buruz burukoa.



**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortziriétako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Lesakako idazkari lanpostuaren inguruan EHEk bi hitz erran nahi ditu

Lotsagarria da Lesakako EAJ/EA alderdiek idazkari lanposturako euskara maila jeitsi izana,auskalo zein interesengatik! Ez dira bada, teoria mailan bada ere,alderdi abertzale eta euskaltzaleak? Nolatan orduan,horrelako erabakia hartu izana? Lojikoa da? Kontsekuentea da? Argi dagoena da,euskaldun guztiok euskaraz mintzatzeko, idazteko, atenditzeko, euskaraz bizitzeko eskubidea dugula eta horregatik EAJ/EAren jarrera salatu nahi dugu; Lesakako euskaldunon hizkuntza eskubideen kontrako erabakia hartu dutelako. Lesakako udalak gure hizkuntz eskubideak bermatu beharko lituzke. Alabaina bermatu beharrean, hizkuntz eskubideen urraketa jasan behar dugu! Harrigarria! Eta EAJ/EAk zuzendutako urraketa izan da gainera! Ikaragarria!

EAJ/EAk erran lezake euskara maila eskatu eskatzen dela baina bistakoa da idazkariari idazmenean 3.maila eskatuz, honen eginkizunak (aktak,txotenak,idazkiak...) ezin izanen dituela euskaraz bete, 3.maila ez baita egokia horrelako lanposturako.

Bertzalde,euskararen normalizazio prozesuan horrelako erabaki zikina atzerapausu izugarria da.Eta gainera oraindik zikinagoa euskararen normalizazio prozesu horretan lanean dihardutenen eskutik egina dagoenean.(EAJ/EA hortan ari zirela suposatzen genuen-eta!) Honengatik guztiagatik EAJ/EAren jarrera salatu nahi dugu irmoki;gure udal sasi-euskaldunak bere faltsukeria erakutsi baitigu. Lesakako idazkariak berak ere bere burua "defendatu" edo hobe erran zuritu du eskualdeko telebistaren bidez. Honek justifikatzen du justifika ezina dena. Zeren errealitatea bat baita: Lesakarrok euskaraz bizi nahi dugu eta aldiz euskaldun bezala ditugun eskubideak urratzen dizkigute. Eskubide osoa dugu gure herrikoetxean euskaraz solasteko euskaraz tratatzeko eta idazkiak eta... euskaraz jasotzeko. Eta azkenik Lesakar guzioi erran garaia dela euskaldun kontzientzia izateko, konplexuak gaindituz eta behingotik gurea dena defendatuz,erabiliz eta eskatuz.Bada garaia gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko; euskaraz aritzea ez baita pribilegioa, eskubidea baizik. Eta garaia da horrelako bidegabekeriak salatzeko. Gure esku dago!

**Lesakako Euskal Herrian Euskaraz Taldea**

## Euskal presoak Euskal Herrira ikurrak ebatsi dituzte Elizondon

Joan den apirilean, Elizondoko zenbait etxeetako balkoietatik, "ezezagun" batzuk, atsean eta altxapeka Euskal Presoak Euskal Herriratzearen aldeko ikurrak hautsi eta ebatsi zituzten. Eraso faxista hauen aitzinean, honako hau adierazi nahi dugu:

1- Euskalherriak bizi duen gatazka politikoaren ondorio argienetariko bat, frantziar eta espainiar gobernuek, heuren kartzeletan preso dituzten 700dik gorako euskalherritarrak dira.

Kartzelan egonda, euskal preso politikoak giza eta politiko eskubideak dituzte, behin eta berriro ukatu eta bortxatuak izan arren. Alde batetik kartzelan tratu duina jasotzeko eskubidea eta bertzetik, eragile politikoak diren heinean, gure herriko bizitza soziopolitikoan parte hartzeko eskubidea dute. Eskubide hauek bermatzeko euskal preso politiko guztiak Euskal Herrian egotea ezinbertzekoa da.

2- Zoritxarrez, gure eskualdean, Euskal herria osoan bezala, aski ongi ezagutzen dugu Espainiako gobernuak gure herriaren askatasuna eta bake nahiak zapuzteko erabiltzen dituen zakur armatuenmoduak. Denok sufritu ditugu, pertsonalki edo hurbiletik, Guardia Zibilaren erresioa bere expresibitate ezberdinetan (kontrolak, kargak, kale identifikazio-intimidazioak, retentzioak, atxiloketak, torturak, erahilketak, etab), hortaz, inongo dudarik gabe argi dugu nor dagoen eraso hauen gibelean, nahiz eta hontakoan atsearen konplizitatearekin eta seguraski paisanoz burutu dituzten arren.

Holako ekintzekin beldurra, krispazioa eta herritarren haserrea bertzerik ez dute lortu nahi, hori baita herri honek bakea eta normalizazioa lortzeko behar ez duena, hain zuzen ere.

Euskal Herriak bakea lortzeko, gatazkari konponbide demokratiko bat eman behar dio. Herritar, alderdi politiko eta eragile politiko eta sozial guztiek bururutako prozesu batek, kanpoko injerentzia eta presiorik gabe, ekarriko du bakea. Hortaz, ozen eta garbi erran nahi diegu hemen ez ditugula behar, joan daitezela: Alde hemendik!!

Azkenik, aipatu beharra dago, herri honek inoiz ez dituela bere presoak atzendu eta eraso hauen bidez ez dutela presoekiko elkartasuna moztuko. Hortaz, berriro ere, eskualdeko herritar guztiei animatu nahi zaituztegu "Euskal presoak Euskal Herrira" ikurrak zuen balkoietan patzera.

**Baztango Askatasuna**

## Txirrindulariei errespetua

Inguruko errepideetan izandako azken gertaerak direla eta honako hau adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin Joseba Olazábal Kaballeroren senitarte eta inguruko lagunei gure doluminik sentituena adierazi.

Bigarrenik inguruko auto gidariei txirrindularien segurtasuna bermatzearren, beharrezko ez diren arriskurik ez hartzea eskatzen diegu.

Mesedez besteen bizitzarekin ez jostatu.

**Aizan K.E.**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario Vasco 2005-06-07

*«Mendi bizikleta jautsierak jendeak uste duena baino gehiago eskatzen du. Indartsu egon behar duzu bizikleta manejatzeko, konpetizio erritmoa altua delako. Astegunez bi aldiz gimnasioa egiten dut, rallya, errepidea, serieak eta asteburuetan teknika lantzen dut, Igantzi eta Berako zirkuitoetan».*

Miriam BLAS
Berako txirrindularia
D. Vasco 2005-06-07

*«Beti leku handietan ibili naiz sukaldari eta gogoa nuen nere kontura jartzeko, xarma handiko eta tipikoa den harri eta zurezko etxe polit batean, eroso lan egiteko moduan. Horrelako zerbaiten gogoa nuen, goxoagoa, xumeagoa, lasaiagoa, sukaldeaz gozatu ahal izateko sobera estutu gabe».*

Txus ZABALETA
Aurtizko ostatukoa
Zazpika 2005-06-05

## • 11 GALDERA LABUR •

**Gasolindegiko lana edo turismo bulegokoa?**
Turismo bulegokoa, ordutegia aunitzez hobea da. Bietan jendearekin tratua duzu, baina batean lanean dagoen jendearekin eta bertzean oporretan dagoenarekin, eta kontentuago ibiltzen dira.

**Zein da turistek Malerrekan gehien bisitatzen duten lekua?**
Leurtza nik uste, eta hurbilean Bertizko jaurerria.

**Turistek ezagutzen ez duten Malerrekako xoko berezi bat?**
Trenbidea aipatuko nuke. Jendeak bidea ezagutzen du eta badaki garai batean trena ibili zela, baina ez daki bere historia luzea.

**Nola salduko zeniokeen Doneztebeko bestak turista bati?**
Astean zehar besta herrikoiak eta alaiak dira.

**Zer jarri eta zer kenduko zenukeen Sanpedroetako egitarauan?**
Kendu deus ere ez. Gazteen partehartzea handituko nuke, nahiz eta hori Burrunbarekin lortzen ari den.

**Eguzkia hartzera, Hondarribiako hondartzara edo Leurtzara?**
Nahiago dut Donostiako Zurriolako hondartza.

**Mendira, Piriniotako hiru milako batera edo Mendaurrera?**
Ez naiz sobera mendizalea, beraz, Mendaurrera errazago.

**Gazte Burrunbako kidea: gazteek buila aunitz eta lan gutti egiten dutela dioenari, zer?**
Ez dela egia. Aski da Burrunbak urte osoan egiten duena ikustea.

**Racismomaton tresna jarri duzue azken jardunaldietan. Arrazistak gara hemen?**
Oraindik ez dugu bertze lekuetan haina etorkin, baina pixko bat bagara.

**Eta zu, arrazista zara?**
Ustez ez naiz, baina gero zenbait ekintzatan igual bai.

**Nafarroako presidentearen abizena izateak ateak ireki edo itxi egin dizkizu?**
Gipuzkoa aldean txisteak egiteko balio du, baina ateak irekitzeko edo ixteko ez.



**Idoia SANZ**
*Doneztebeko Turismo Bulegokoa*






· PINTURAK
· DROGERIA
· Esmalteak
· Bernizak
· Lasurea urpintura
· Margo klase guziak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Profesionalentzat prezio berezia

PINTURAS PIKABEA MOLINERO

Zalain auzoa, Aizmila fabrikaren parean • Tel: 948 630 240 · Mug: 627 022 333 BERA

ARKUPEAK

# Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia eginen zaie

## Ekainaren 22an eginen da besta handia Donezteben

ttipi-ttapa

Ekainaren 22an eginen da Donezteben Arkupeak elkartearen urteko besta handia. Arkupeak elkarteak eta Nafarroako Kutxak antolatuta, omenaldia eskainiko zaie aurten 85 urte betetzen dituztenei, baita urrezko ezteiak ospatzen dituztenei, hau da, 50 urte ezkondurik egin dutenei eta bidenabarkoan, Arkupeak elkartearen hemeretzigarren urteurrena ere gogoratuko dute.



**Urrezko Ezteiak, hau da, 50 urte ezkondurik betetzen dituztenak eta 85 urte bete dituztenak omenduko ditu Arkupeak elkarteak, bidenabarkoan elkartearen hemeretzigarren urteurrena gogoratuz. Ekainaren 22an izanen da zer ospatua Donezteben**

Autobusen irteera ordutegiari dagokionez, Goizueta, Urdazubi eta Zugarramurditik goizeko 9:30etan abiatuko dira; Irun eta Leitzatik goizeko 10etan; Eratsun eta Ezkurratik 10:15etan; Bera, Etxalar, Arantza, Elizondo ingurua eta Almandoztik 10:30etan eta Zubieta, Sunbilla, Oronoz eta inguruko herrietatik 10:45etan.

11:30etan Doneztebeko elizan Meza izanen da eta agintariak ere etorriko dira. Mezan bertsolariak ere arituko dira eta ondotik omenduei opariak emanen zaizkie. 14:15etan, bazkaria izanen dute Doneztebeko kiroldegian, Argedaseko jatetxe modernoaren eskutik, beti bezala, Feli, Rosi eta beraien laguntzaileekin. Menua, beti bezala, berezia izanen da: fritoak eta langostinoak, zurrupakia, legatza erromatar erara, umerria entsaladarekin eta tarta izozkiarekin izanen dute, dena txanpaina, ardoa, ura, kafea eta kopekin bustia.

17:00etatik 19:45ak arte dantzaldia izanen da Amalur taldearekin. Dantzaldiari sarrera agintariek emanen diote.

DIRULAGUNTZAK

# Suhiltzaile boluntarioen parkeentzat dirulaguntza eman du Gobernuak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak suhiltzaile boluntarioen bortz parkerentzat 101.900 euroko dirulaguntza eman du. Zehazki, Leitza, Bera, Lesaka, Agoitz eta Isabako parkeek jasoko dute dirua, aurten izanen dituzten gastu arruntei aurre egiteko. Dirulaguntza hauek, Presidentzia, Justizia eta Barne Departamentuak herri hauetako udalekin duen elkarlan hitzarmenaren barnean ematen dira, 2005. urterako duten gastu arrunten aurrekontua epearen barnean aurkeztu ondotik. Gero, gastu hauek justifikatu beharko dira, ekitaldien parteekin. Eskualdeko parkeei dagokienez, Leitzako suhiltzaileek 29.000 euro jasoko dituzte, Berakoek 27.000 euro eta Lesakakoek 14.000 euro.









BERA

# Kirol Eguna lehen aldiz eginen da uztailaren 2an

## Egun osoan hainbat ekitaldi antolatu ditu Udak Kirol Batzordeak

**Amaia eta Ainhoa**

Uztailaren 2an eginen da Berako I. Kirol Eguna eta horregatik ekitaldi mordoa antolatu dira. Goiz goizetik hasiko dira eta gustu guziak hasetzeko haina ekitaldi izanen da. Goizeko 10etan kiroldegi aitzinean saskibaloiarekin hasiera emanen zaio egunari, 3ko jaurtiketen txapelketekin eta nahi duen guztiak 3x3 txapelketan parte hartu ahal izanik. Ordu berean orientering proba ere izanen da. 11:45etan 45 minutuko aerobik saioa edo 15 minutuko Ciclo Indoor saioa egin dezake nahi duen guztiak (3 saio izanen dira guzira). Eguerdirako igerilekuan waterpolo eta antzeko jokuak antolatu dira Tai Chi erakustaldia eta guzi. 13:00etan kiroldegi aitzinean beteranoen arteko sokatira eta herri kirol proba konbinatuaren txapelketa mistoa izanen da alde batetik, eta bertzetik, oraingo herri kirol taldeko gazteen artekoa. Kenpo Kai erakustaldia eta Aspace taldearen gimnasia erakustaldia ere ordu berean izanen dira kiroldegiko pistan. 14:00ak aldera herri bazkaria izanen da Altzateko frontoian. Arratsaldean pilotak bere tartea hartuko du. 17:00etan Altzateko frontoian Berako bi gazteen arteko pilota partidua jokatuko da eta nahi duenak Errandorearekin puntto partidak joka ditzake. Ordu berean boulderrean, kiroldegi aitzinean, eskalada erakustaldia izanen da lehenengo, eta ondoren, nahi duenak probatzeko aukera izanen du. 18:30etan bizikletarekin proba bereziak eginen dira. Alde batetik mantso-proban bizikletarekin polikien ibiltzen dena ezagutuko dugu, eta bertzetik, ADO'S eta BYDH txirrindulariek beraien erakustaldia eskainiko dute. Seguraski futbola eta atletismoa ere izanen dora I. Kirol Egunean.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

### *Udal Liburutegia oraindik itxia*

**Udal Liburutegia azaroaz geroztik itxia dago, bertan egin beharreko hobekuntza eta berriztatze lanak tarteko. Udalak eraikinean egin beharreko lanak bere gain hartzeko konpromezua hartu zuen eta Nafarroako Gobernuak altzari berriak jarriko zituen. Azaroaren 8an hasi ziren hustutze lanak eta aste batzuren buruan berrikuntza lanak egin ziren. Nafarroako Gobernuak hasiera batean liburutegirako altzari berriak ekarriko zituela agindu arren, Agoizko liburutegian aitzinetik erabilitako altzariak bidaliko zituela jakinarazi zion Udalari. Halere, altzari horiek ez dira nahikoak, lehen 70 eserleku baldin baziren, orain 16 daude bakarrik, 15.000 aleko fondoetatik 6.000 inguru apalik gabe daude, haurrentzako txokoan ez dago eserlekurik, fondo bereziak gordetzeko bitrina berezirik ez dago… Egoera honen aitzinean Nafarroako Gobernuko Liburutegi Sarearekin eta Kultura Kontseilariarekin harremanetan jarri izan da Udala baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Kultur Batzordeak egoera bidegabe hau salatu nahi izan du eta Nafarroako Gobernuak neurriak har ditzan hainbat ekimen bideratuko dituela jakinarazi du.**



PERTSONAIA

Leire TELLETXEA

## Herriko akordeoilariari lehen saria Lleidako lehiaketan

Leire Telletxea Martiarena 19 urteko akordeoilariak VI. San Anastasi lehiaketa irabazi zuen Lleidan, maiatzaren 14 eta 15ean. Lehiaketa instrumentala da, akordeoia, pianoa, gitarra eta biolinek batera lehiatzen dute. Leirek, bere lehen partehartzean, 18-22 urte arteko senior mailan lehen saria irabazi zuen, pianista batekin batera. Honetaz gain, Kataluniako Akordeoi Elkarteak akordeoi interprete onenaren sari berezia eman zion. Berako Musika Eskolan Lourdes Iza irakaslearekin ikasi ondotik, aurten Donostiako Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) ari da musikako karrera egiten Leire Telletxea. Akordeoi klaseak Iñaki Alberdik ematen dizkio.




ANSONEA Jatetxea
· Eguneroko menua eta karta
· Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 · 948 631 155 · BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BAR BOTXO OSTATUA

LESAKA

# Irantzu Pastorren kartelak iragarriko ditu Sanferminak

## Kemen Pumarek irabazi du programako azal lehiaketa




UTZITAKO ARGAZKIA
Irantzu Pastorek kartel lehiaketa irabazi du hirugarren urtez.

Aitor AROTZENA

Udaleko kultur batzordeak Sanfermin bestetarako programaren azala eta kartela diseinatzeko lehiaketara aurkeztu diren lanak aztertu ondotik, lan sarituak erabaki ditu.

Honela, kartel lehiaketara aurkeztutako 23 proposamenak aztertu ondotik, 500 euroko lehen saria Iranzu Pastor Ordokiren "Zubia" lanari ematea erabaki zuen. Irantzu Pastorrek azken bi urteetako lehiaketak ere irabaziak zituen.

Azal lehiaketarako aurkeztutako 36 lanak aztertu ondotik, berriz, Kemen Pumar Taintaren "Galdu" lanak irabazi du 500 euroko lehen saria.

Aurten, lehen aldiz, deialdi berezia egin da Sanferminetako programaren gibeleko azala aukeratzeko. Deialdi hori Lesakako haurrei zuzendu zaie eta horren ondorioz, 61 lan aurkeztu dira. Hasiera batean, sari bakarra ematea aurreikusia baldin bazen ere, lanen maila ikusita, sarituaz gain bertze 6 aipamen egitea erabaki du Kultur Batzordeak. Lehendabiziko saria, Paola Oskoz Maziziorek eskuratu du, "Domiko" lanarekin. Aipamen bereziak Amaia Telletxea Mendigutxiak, "Aupa Sanferminak" lanarekin, Oihan Olaizola Otxotekok "Gorriko" lanarekin, Maddi Taberna Etxeberriak "Peñak" lanarekin, Patrizia Etxegarai Altunak "San Ferminak Mundialak" lanarekin, Garazi Konde Orubek eta Asier Sanchez Etxegiak eskuratu dituzte.

# Urrezko eta Diamantezko Ezteiak egiten dutenei omenaldia

Ekainaren 3an egin zen Nafarroako Kutxako Urrezko Adina elkarteak antolatutako jubilatuen Eguna. Urtero bezala, aurten ere Urrezko eta Diamantezko Eztaiak ospatzen dituzten bikoteak omendu ziren Lesakako bortz senar-emaztek egin dituzte 50 urte ezkondurik : Pedro Larralde eta Maria Jesus Zubieta; Juan Bautista Lazkano eta Eusebia Iratzoki; Francisco Etxepare eta Anastasia Ariztegi; Luis Mitxelena eta Benita Larralde eta Segundo Rodriguez eta Julia Marcelo. 60 urte ezkondurik bete duen bikotea ere omendu zuten, Jose Maria Irurieta eta Maria Larralde osatutakoa, nahiz eta hauek ezin izan zuten ospakizunera agertu.

### *Kurtso bukaera ikastolan*

Ekainaren 25ean kurtso bukaerako besta eginen du Tantirumairu ikastolak. 30. urteurrena dela era ospakizun berezia izanen. Bazkal ondotik, taldeek bere emanaldiak eginen dituzte. Musika eta haur jokoak ere izanen dira.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI
**Txistulari beteranoen kalejiraren eta mezaren ondotik, Endika Mendegiak aurreskua eskaini zien plazan aurten Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteei. Plazatik frontoira joan ziren omenduak eta erretiratuak bazkaltzera eta gero dantzaldia izan zuten.**









ETXALAR

# Beñat Irazoki eta Leire Olagarai igerilekuko arduradunak udan

## Ekainaren 25etik abuztuaren 31arte egonen da zabalik igerilekua



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Beñat Irazoki eta Leire Olagarai, igerilekuko arduradunak izanen dira uda honetan.**

**Joseba eta Nerea**

Baziren urte batzuk igerilekuko arduradunak ez genituela herrikoak izaten. Sorosle izateko eskatzen zuten titulazioa dela eta, kanpotik etortzen ziren, herrian titulu hori zuen inor ez zegoelako. Aurtengo udan berriz, Beñat Irazoki eta Leire Olagarai gazteak izanen dira igerilekuko arduradunak, udaletxearen laguntzaz "uretako sorospen" izeneko titulua ateri ondotik. Heldu den ekainaren 25ean irekiko dira igerilekuak eta abuztuaren 31a bitarte egonen dira zabalik.

### *Gasna Feria arrakastatsua*

Arrakasta handiz ospatu zen joan den ekainaren 5ean XIII. Gasna eta Artisau Feria Eguna. Eguraldi polita ateri zuen goiz-goizetik eta egun osoan lagundu zuen, goiz-arratsaldez egin ziren ekitaldi guzietan. Jende andana ibili zen plaza bazterrean aski goizetik. Artisauen postuak ikusi, herriko trikitilarien saioa aditu, eta Altxatak egindako taloak jaten bisitari aunitz ikusi genuen. Gasna lehiaketan ere aspaldiko urtetako partehartzerik handiena izan zen aurtengoan. 21 gasna aurkeztu ziren, Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Urdazubitik. Lehenbiziko bi sariak urroztarrek eraman zituzten. Txapelduna Kontxi Jaunena izan zen eta bigarrena Nati Telletxea. Hirugarren postuan iazko irabazlea gelditu zen, Felixa Irungarai. Etxalartarren artean, lehiaketan lehenbiziko aldiz parte hartzen zuen Mari Asun Olagaraien gasnak irabazi zuen. Bigarrena, bertze hainbatetan ere saritua izan den Isidro Ariztegik eraman zuen.

Bazkarian 110 lagun bildu ziren. Arratsaldean berriz, Andre Mari Dantza Taldeko gaztetxoek saio bixi eta polita eskaini zuten. Altxata Kultur Elkarteko antolatzaileak gustura gelditu ziren egunak izandako martxarekin. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkie ekitaldi desberdinak antolatu eta prestatzen lagundu zuten herritarrei.

### *Haurren Eguna igande honetan*

Landagain eskolako haurrek egun handia izanen dute igande hau, ekainak 19. Urtero bezala, "Haurren Eguna" ospatuko dute. Goizean eskulanen erakusketa paratuko dute frontoian eta eguerdi aldera ipuinak irakurtzen arituko dira, "XVII. Ipuin topaketaren" barrenean. Bertsoak eta trikitixa ere aditu ahal izanen dira. Eguerdiko 14:00etan bazkaria izanen da plazan eta bazkal ondotik "Xurdin ipotxak" izeneko antzeslana eskainiko da.



ARGAZKIA: JOSEBA

**Gasna lehiaketan sarituak suertatu ziren partehartzaileak.**










## ARANTZA

# Ur sarearen berritze lanak Pagozelay enpresak eginen ditu

228.690 euroan egiteko eskaintza egin dute

Nerea ALTZURI

Udalak, ura hartzeko, ura eramateko sarearen zati batzuk berritzeko eta deposito berria egiteko obrak lehiaketara atera zituen eta hiru enpresa aurkeztu ziren, Sasoi Eskabazioak, Construcciones y Excavaciones Fresneda eta Construcciones y Obras Pagozelay. Hiru enpresek aurkezutako dokumentazioa eta eskaintza ekonomikoa kontuan hartuz, Arantzako Udalak lan horiek Construcciones y Obras Pagozelay enpresari eman dizkio. Obrak Miguel Garmendia ingeniariak zuzenduko ditu eta aurrekontua 228.690 eurokoa izanen da, BEZ barne. Obraren hasierako aurrekontua kasik 53.000 euro gehiagokoa zen, 261.306,49.

Lanak hiru hilabetetan egiteko konpromisoa hartu du enpresak eta horretarako hiru lan talde antolatuko dira, bata ur depositoa egiteko eta bertze biak gainontzeko obrak egiteko. Bi urteko garantia ere emanen du enpresak.

Obra hauek probextuz, deposito berriaren ondoan atseden leku bat egitea pentsatu dute udal agintariek eta beraiek jakinarazi dutenez, irekiak daude herritarren ideiak edo iritziak hartzeko. Azkilarreako bizilagunei arazoak gutxitzeko asmoz, bidea irekia uzten edo bertze bideak eskaintzen ere saiatuko dira.

### Literatur lehiaketan sarituak

Ikasturtea bukatzeko gutti gelditzen zaie eskolako lagunei. Urte osoan, hainbar berri on eta iragarpen egiten ditugu eskolatik. Oraingo honetan ere, Nafarroako lehiaketa batean sariak etxeratu dituzte eskolako neska-mutikoek. Literatura, etnografia, irakurketa eta deklamazioa sailak hartuta, Nafarroako eskola ezberdinetako laurehun lan aurkeztuak izan ziren lehiaketara. Euskal adarrean, "Jose Maria Satrustegi" etnografia lehiaketan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan, lanik hoberena, Julen Oteiza, Jon Jorajuria eta Itziar Mitxelena gaztetxoek osaturiko taldearena izan zen, lehenengo saria eskuratuz. Bertzalde, Narratiba sailean, Unai Iparragirre Oskozen lanak sari berexia jaso zuen. Joan den ekainaren 3an sari banaketa egin zen Iruñean.

### Barnetegiak

Aspaldiko urteetan bezala, aurten ere, AEKko barnetegiak izanen dira udan. Udako bi hilabeteetan, uztailean eta abuztuan hamabortzero euskara ikasteko eta hobetzeko urrats ezberdinetako ikasleak herria bizituko dute. Aterpean, jan-otorduak eta loaldiak egin eta herriko eskolan klaseak emanen dira. Beraz, urte osoan, kanpoko haurrek herria haunditzen duten moduan, udan, gazteek herria inguruak bixituko dituzte. Uztailaren 4tik aitzinera barnetegietako lagunak etorriko dira.







UTZITAKO ARGAZKIAK

**Joan den ekainaren 7an, arratsaldez, Berako Isidoro Fagoaga udal musika eskolako ikasle irakasleek, herriko karriketan eta plazan emanaldiak eskaini zituzten.**

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratuetarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak
LESAKA: Bittiria, 71-beheo
Tel: 948 637 050
Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713




bortzIRUDI

BORTZIRIAK

# Arrakoizko industrialdea lehenbailehen egitea eskatu dute bortz herrietako udalek

## Ekainaren 15ean biltzekoak ziren industria kontseilariarekin eta NASUINSAko arduradunekin

ttipi-ttapa

Bortzirietako udalek behar beharrezkotzat ikusten dute Nafarroako Gobernuak Etxalarko Arrakoitz inguruan industrialdea bultzatzea eta hori eskatuz prentsaurrekoa eskaini zuten ekainaren 2an Etxalarko Kultur Etxean. Pentsaurrekoan Jesus Mari Begino Igantziko alkatea, Vicente Arotzena Arantzako alkatea, Migel Mari Irigoien Etxalarko alkatea, Jon Abril Berako alkateordea eta Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkatea izan ziren. Bertan jakinarazi zutenez, Etxalarlatsa eta Berrizaun artean, 75.000 metro koadro erabilgarri izanen lituzke Arrakoizko industrialdeak eta kokapenaren egokitasuna ikusita, dagoenekoz badira bi enpresa lekua eskatu dutenak. *«Arrakoitz inguruan 150.000 metro koadro ditugu eta erdia lur industriala bihurtzen ahal da, baina horretarako Nafarroako Gobernuaren eta NASUINSAren laguntza behar dugu, udalek ez baitugu baliabide ekonomiko nahikorik proiektua aitzinera ateratzeko»* adierazi zuen Migel Mari Irigoien, Etxalarko alkateak.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Igantzi, Arantza, Etxalar, Bera eta lesakako udal agintariek bat egin dute Arrakoizko industrialdea bultzatu behar dela eskatzerakoan.**

Gai honi buruz lehendik Nafarroako Gobernuarekin izan dituzten harremanei behin betiko bultzada eman nahi diote orain Bortzirietako udal agintariek. Horretarako, Industria kontseilariarekin eta NASUINSAko arduradunekin bilera hitzartua zuten ekainaren 15erako.

Nafarroako Gobernuko agintariarekin egin beharreko bilera horretan eskari garbia jarri zuten mahai gainean Bortzirietako alkateek: Nafarroako Gobernuak lehen Alkaiagako industrialdearekin egin zuen modura, orain Arrakoizko industrialdea bultzatu eta aurrera ateratzea. Izan ere, Jon Abril Berako alkateordeak, aipatu zuenez, Nafarroako Gobernuak ezin du mendialdean eta Erriberan neurri berdinak eskatu industrialdeak ezartzeko. Industria Departamentuak 200.000 edo 300.000 metro koadroko eremuak eskatzen ditu eta hori Bortzirietan topatzea ezinezkoa da. Ildo horretatik, Jesus Mari Begino Igantziko alkateak *«Erriberan industrialdeak ezartzeko azpiegiturak ikusten dira, baina gero hutsak daude. Hemen lantegiak jarriko direla segurtatzen ahal dugu»* erran zuen. Bortzirietako alkateek bere babesa eman zioten Arrakoizko proiektuari. Beraien ustez, eskualdeko lantegi handiek erakusten duten zalantzazko etorkizunak premiazkoa bihurtzen du industria berrientzako azpiegiturak jartzea. Bide horretan Arrakoizko industrialdea da Bortzirietan aukerarik egokienak eskaintzen dituena. Honela, Vicente Arotzena, Arantzako alkateak aipatu zuenez, *«industrialdea ezartzea beharra da eta ez lujoa»*.







## SUNBILLA



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

*Korpus Eguna*
**Aski itxura polita zuten Sunbillako karrikek Bestaberri edo Korpus egunean. Karrika nagusia iratzez estalia ageri zen eta aurten lehen jaunartzea egin duten neska-mutikoak izan ziren berriz ere protagonista.**

# Bestetan abesbatzan kantatzeko izena eman behar da ostatuetan

Ulibeltzak kirol taldea, mendi eta bizikleta ateraldiekin segitzen du

**ttipi-ttapa**

Datozen Santiburtzio bestetan abesbatzan kantatzeko aukera zabaldu da. Horretan interesatuak daudenek, ostatuetan paratuak dauden orrietan izena eman beharko dute. Entsaioak noiz izanen diren, izena eman ondotik jakinaraziko da.

### *Ulibeltzak kirol taldearen ateraldiak*

Ulibeltzak kirol taldeko kideek beraien ateraldiekin segitzen dute. Asteburu honetan, ekainaren 18 eta 19an, mendi taldekoak Panticosatik Infiernosera igoko dira, 3.074 metrora, prestakuntza hagitz ona behar duen ateraldian. Ekainaren 25ean, berriz, txirrindulariak Sunbillatik ateri eta begiralekua, Elizondo, Otsondo eta Lizarietan barna berriz ere herrira itzuliko dira.

## MALERREKA



UTZITAKO ARGAZKIA

**EHNA egiteko esperoan Donamarian.**

# 120 lagunek EHNA tramitatu zuten Donamarian

Ekainaren 25ean Zubietan ere tramitatuko da

**ttipi-ttapa**

Maiatzaren 28an EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Agiria) tramitatzen hasi zen Malerrekan.

Donamaria izan zen lehen herria eta adin guzietako jendea hurbildu zen. Osotara 120 lagunek tramitatu zuten. Eguna jai giroan igaro zen, trikitilari eta txalapartariekin gozatzeko modua izan zen, baita hamarretakoa hartzeko ere herriko ostatuan. EHNAren tramitazio egunean poteoa eta bertso afaria ere egin zuten herriko gazteek. EHNA tramitatzeko aukera gehiago ere izanen da Malerrekan, lekukoa Zubietak hartzeko asmoa baitu. Malerrekako edonork izanen du tramitazioa egiteko modua ekainaren 25ean goizez 11etatik 14etara eta arratsaldez 17etatik 20etara. Eskaera egiteko beharrezkoak dira 3 argazki txiki, erroldako agiria (norberak bere udaletxean eska dezala) eta 15 euro.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
· Pintura eta bernizak
· Bainurako mobleak eta osagarriak
· KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
Igantziko Bentak
✆ 948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodilloak.

## SALDIAS

# Sanjoan bestak ekainaren 23tik 26ra ospatuko dira

### Aizkora apustua jokatuko da igandean



**Osteguna 23**
**San Joan bezpera**

**20:00etan** ohiturako Baztan Zopak Herriko Ostatuan. **22:00etan** San Juan suak. **Gauez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

**Ostirala 24**
**San Joan eguna**

**9:00etatik aurrera** txistulariek alaitu dute herria. **11:30etan** Meza Nagusia, San Joan herriko patroiaren ohorez. **12:30etan** erremonteko partiduak herriko gazteen artean. **17:30etan** infantil eta afizionatu mailako pilotarien arteko pilota partiduak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldiak TRAKETS taldearekin.

**Larunbata 25**

**11:30etan** herriko gazteen arteko Herri Kirolak. **Goiz eta arratsaldez** umeen jokuak karts eta gaztelu haizatuekin. **14:00etan** herri bazkaria herriko ostatuan. **18:00etan** herriko mus txapelketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldiak TRAKETS taldearekin.

**Igandea 26**

**Egun osoan** BETI ALAI txarangak alaituko ditu kaleak. **13:00etan** aizkora apustua: Mikel Mindegia eta Jon Telletxea; Donato Larretxea eta Xabier Mindegiaren kontra. **17:30etan** kadete eta jubenil mailako pilota partiduak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldiak MODESTO akordeolariarekin.

### Omenaldia eskaini zitzaion Urrutia herriko erremontelariari

Saldiasko herriak, Miguel Mari Urrutia herriko erremontelaria eta azkeneko binakako txapelketaren irabazleari omenaldia eskaini zion maiatzaren 29an. Txistularien kalejira eta mezaren ondotik, erremontelari profesionalen arteko partida bikaina ikusteko modua izan zen Saldiasko pilotalekuan. Patxi Zeberio izan zen Miguel Mari Urrutiaren laguna aurreko koadroetan eta Iñaki Lizasok aurrean jokatu zuen, atzean Etxeberria III lagun zuela. Zeberiok eta Urrutiak irabazi zuten partida, eta gero hainbat herritarrek bazkarian parte hartu zuten.
















## GOIZUETA

# Ikasturtea kontzertuarekin bukatuko du musika eskolak

### Ostiral honetan izanen da Udaletxeko Ganbaran eta berrogeita hamar ikaslek hartuko dute parte



Argazkia: Mattin Apezetxea

**Ane Zinkunegik zuzentzen duen judo eskolak kurtso amaierako erakustaldia eman zuen plazan maiatzaren 28an.**

Esteban AROTZENA

Ostiral honetan, ekainak 17, 19:30etatik aurrera Ganbaran eginen den kontzertuak, bukaera emanen dio udal musika eskolaren 04-05 ikasturteari. 50 ikaslek parte hartuko dute bertan, eta ordu terdi inguru iraunen duen emanaldian kitarra, piano, trikitixa, perkusio eta txistuarekin jotako piezak entzuteko aukera izanen du urtero bezala aretoa gainezka beteko duen entzulegoak.



Utzitako argazkia

**Xaltoko ikasleek bertso saioa ere eskaini dute.**

Ikasturte bukaerak aipatzen hasiz gero, herriko eskolako berriak ere eman beharrean aurkitzn gara, hilabete honetan ekintza ugari antolatu baitira arrazoi honekin. Ohiko futbol partidak, bertso saioak eta jokoez gain, ikasleek egindako eskulanen erakusketa arrakastatsua burutu da aurten. Gainera, eta iaz hasitako sokari jarraituz, etxez etxe banatuko den «Kontu-kontari» aldizkaria argitaratu da. Dena den, Xaltoko zenbait ikasleren eskolatik kanpoko ekintzetan parte hartze nahia ez da herriko ekintzetara bakarrik mugatzen. Honen eredu bezala esan, Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen literatur lehiaketan Maialen Uitzik eta Xumar Bakerok bigarren saria eskuratu dutela, poesia modalitatean batek eta narratiban besteak. Maialen gainera irabazle suertatu berria da eskualdeko bertso-paper lehiaketa eta bigarrena Nafarroakoan. Honetaz gain, Nafarroako eskolarteko bertso txapelketako finalean kantatu zuen, lan txukun askia eginez gainera.

### *San Isidro eguna*

Goizuetako nekazaritzaren egoeraren aurrean deus haundirik ospatzeko ez baldin badago ere, 30 baserritar elkartu ziren Txoko tabernako mahai bueltan San Isidro egunean. Gazte gutxi eta afaltiar guztien ahotan kontu bera: *«baserrian gero eta lan gehiago egiten dugu, gero eta etekin murritzagoak lortzeko. Honela ez dago luzaroan segitzerik»*. halere, kontu triste hauek ederki ahaztu ziren afaria aurrera joan ahalean.

### *Erabilitako olioa*

Sukaldean erabilitako olioa biltzen duen Ecogras enpresak udalari jakinarazi dionez, 555 litro olio zikin bildu dira herrian lehengo urtean.

## ARESO

# Erreka aurkitu dute Eluseder industrialdearen lur azpian

### Sokatira taldea Suitzan izan da



Argazkia: Berria

**Ane, Saioa eta Ane Miren neskek bere lehen jaunartzea ospatu zuten Korpus Kristi egunean, mezan protagonistak izan baziren, herrian egiten den prozesioan hor ibili ziren loreak botatzen.**

Juana Mari SAIZAR

Eluseder industrialdea handitzeko, lur zorua bezain garrantzitsua da ura. Beraz, geologo talde bat lan honetan aritu da eta 160 metroko sakoneran erreka bat aurkitu omen du. Honen emaria 40 litrokoa omen da. Froga gehiago egin behar dituzte dena ongi aztertzeko. Hau dena horrela izanda hurrengo pausoa empresa berriak nola ekarri eta zer eskaintzen zaien azaltzea da. Beste lan taldea mugitzen ari da horretarako han eta hemen. Ea denbora gutxi barru mugimendua hasten den eta errepidea moldatzeko diru laguntzak handitzen dituen Nafarroako Gobernuak.

### *Sokatira*

Soka tira taldeak lauko euskadiko txapelketan 300 kiloko finalean ez zuen jokatu ahal izan Joseba Olazabalen heriotza zela eta. Talde guztia bildu eta eztabaidatu ondoren jarraitzea erabaki zuten eta 320 kiloko txapelketan, Areso B, txapeldun ordea suertatu zen. Nuarbe eta Areso taldeak Suitzara joan dira, hango Mosnen taldeak 25 urteurrena ospatu nahi zuelako. Ekainaren 11n, bi pisutako txapela jokatu dute, 600 eta 680 kilokoa. Biharamonean, 640 kiloko txapelketa jokatzekoa zuten.

ARANO

# Kanposantua berritu eta handitzeko lanak egingo dira

Azaroa baino hasi beharko dute obra egiten



Kontxi KLABER

Hilerria berritzeko asmoa du Udalak. 450 m² handituko da Seroneko baratza aldera, argi indarra eta iturri bat ere proiektuan sartuak daude, baita ezinduak eta adineko jendeekin gogoratuz arrapala jartzea ere, eta bertaraino kotxea joateko aukera izango da. Kanposantua konpontzeko 210.595 euroko aurrekontua dago ezarrita eta 58.969 euroko diru laguntza jasoko du udalak Nafarroako Gobernutik. Obrak azaroa baino lehen hasi beharko dute.

### *2005-2008 Hirurteko Plana*

2005-2008ko planean hainbat lan eskatu zituen Udalak, baina hasiera batean bakarra onartu du Nafarroako Gobernuak. Suro auzorako ur depositoa egiteko 200.000 euroko diru-sail bat dago sartua Hirurteko Plan honetan Aranoko udalarentzat eta ea zorte pixka batekin proiektu hau aurrera eramatea lortzen duten.

Beste aldetik, kaleko argiteriaren berrikuntzak (herrirako, beheko herrirako, Bentaberrirako eta Suro auzorako), zerrenda batean txandaren zain gelditu dira eta ez da erraza ikusten hau aurrera eramatea.

Herriko plazaren berrikuntza lanekin ere gauza bera gertatu da, erreserban gelditu direla, alegia.



LEITZA

# «Udaletxeko balkoian ikurriña bai ala ez» herri galdeketa eginen da igandean

## Baiezkoa ateratzen bada, «koherentzia politikoz» alkatetza utziko du Aralarrek

ttipi-ttapa

Duela hilabete eskas harrobiei buruzko iritzia eman zuten leitzarrek azken aldian hauts asko harrotu dituen beste arazoren baten inguruan iritzia emateko aukera izanen dute igande honetan, ekainaren 19an. *"Udaletxeko balkoian ikurriña bai ala ez?"* galderari erantzun beharko diote orain, gai honen inguruan sortutako Ikurriñaren Aldeko Herri Taldeak, Larrainek, EAk eta Aralarrek egindako galderari, hain zuzen. Gehiengoak galdera hori egitea erabaki baldin bazuen ere, Aralar ez dago konforme galdera planteatzeko moduarekin. Fermin Barriola zinegotziak aipatu digunez, galdera horren erantzuna Aralarentzat argi eta garbi baiezkoa da. *«Baina guk epaitegien agindua jaso dugu, ikurriña balkoitik kendu ezean alkatea inhabilitatuko dutela esanez eta hor dago koxka. Gure ustez, ikurriñaren gaiaren inguruan udalak hartutako erabakia babesten duten edo ez galdetu beharko litzaieke leitzarrei».* Aralarko zinegotziak aipatu digunez, *«galdera honen erantzuna baiezkoa bada, ikurriña jarriko dugu balkoian, baina guk herriaren nahiaren kontra aritu garela kontsideratuko dugu, eta koherentzia politikoz, alkatetza utziko dugu».*

Harrobiaren inguruko herri-galdeketa guziz ofiziala izan zen, Espainiako Kongresuko eta Nafarroako presidentearen babesa izan baitzuen. Oraingo hau ez da horrela izanen, ikurren legearen kontra joan daitekeen galdera proposatzen baita. Larrain taldeko Marian Zestauk aipatu digunez, *«lege horren ondorioz eta Aralarrek hartu duen erabakiaren ondorioz deitu da herri-kontsulta. Lehen ere ailegatu dira horrelako aginduak Leitzako udaletxera, baina inork ez dio kasurik egin. Hori orain nolabait hautsi egin da eta horrek bultzatu gaitu herriari galdetzera».*

Ekainaren 10etik 17ra kanpaina egiteko aukera dute taldeek. EAk eta Larrainek baiezkoaren aldeko botua eskatu dute eta Aralarren beraien iritzia hautesmahaian nola isladatu aztertzen aritu dira. UPNren ustez, horrelako galdeketa egitea «erridikulua» da. Silvestre Zubiturek aipatu digunez, *«berriz berriketa, jendea nazkatzeko eta beroarazteko. Udal honen lema 'zenbat eta okerrago hobeki' dela iruditzen zait».*



Artxiboa

***Plazaola aldizkarirako lanak ekainaren 24a baino lehen***

**Santiburtzio pestak iragarriko dituen Plazaola aldizkariko azal lehiaketara lanak aurkezteko epea San Juan eguna arte zabalik dago. Leitzarrek parte har dezakete lehiaketa honetan eta gehienez ere bi marrazki aurkezten ahal dituzte. 16 urtez beherakoen lanak aldizkariaren barrenean sartuko dira eta 16 urtez gorakoena azalean. Egun berean bukatuko da aldizkarirako idazlanak aurkezteko epea ere. Lan guziak Aurrerako buzoian utzi behar dira.**

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ✆ 948 630 763
abokatua

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
udana
salazones

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

# Doneztebeko bestak

Herriz herri - bestaz besta

05



## Sanpedroak

ekainaren 28tik uztailaren 3ra


















## EKAINAK 28 ASTEARTEA

*Bezpera eguna*

**20:00etan:** Suziria Herriko Etxetik. Ondotik kalejira CORCOR eta herriko txistulariekin. Ohiturazko zopak ere izanen dira dastatzeko herriko jatetxe eta ostatu desber dinetan.

**00:30etatik 03:30etara:** Dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin.



## Ekainaren 28an piztuko dute bestei hasiera emanen dien suziria Donezteben



### EKAINAK 29 ASTEAZKENA
*San Pedro Eguna*

| | |
|---|---|
| **09:00etan:** | Argi Soinuak CORCOR Txarangarekin. |
| **11:00etan:** | Meza Nagusia Pedro Deuna Zaindariaren omenez, Mendi Abesbatzaren emanaldiarekin. Ondotik, Doneztebeko Banderaren eta Trapatan dantzak eta Euskal Herriko dantza gehiago, Doneztebeko dantza taldearen eskutik. |
| **12:30etan:** | Kankailu eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira. |
| **13:30etan:** | Hamaiketakoa Herriko Etxeko arkupeetan. |
| **17:00etan:** | Erremonte Profesionala. Ezkurra-Etxeberria Bitoria-Lizaso Iribarren-SanMiguel Uterga-Olazar |
| **20:00etatik 22:30etara:** | Dantzaldia GAUBELA taldearen eskutik. |
| **0:30etatik 03:30etara:** | Dantzaldia GAUBELA taldearen eskutik. |
































## Gaztetxoek ongi pasatzeko joku ugari izanen dituzte



### EKAINAK 30 ORTZEGUNA

**09:00etan:** Argi Soinuak CORCOR txarangarekin.
**goizean:** Burrunba Kultur Taldeak antolatutako ginkana.
**goizean:** Karts eta puzgarriak Bearzana frontoian.
**11:00etan:** Udal Txikiari harrera eginen zaio Herriko Etxean. Ondotik, Alkate Txiki eta Zinegotzien eskutik suziriaren jaurtiketa.
**11:30etan:** Meza Udal Txikiko kideek presiditua.
**14:00etan:** Burrunba Kultur Taldeak antolatutako bazkaria.
**14:00etan:** Karts eta puzgarriak Bearzana frontoian.
**20:00etatik 22:30etara:** Dantzaldia OSZU taldearen eskutik.
**0:30etatik 03:30etara:** Dantzaldia OSZU taldearen eskutik.

# Gazte Burrunbak ekitaldi bixiak antolatu ditu bertze urte batez




Alústiza
Modako osagarriak · Larrindenda
ARROPAK

MARIA
ESTETIKA ZENTROA
SOLARIUMA
Ongi pasa San Pedroak!
Maria: 948 450 922 - Estitxu: 629 917 148 - DONEZTEBE

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI
Merkatariak 8,
Tfonoa: 948 450 081
DONEZTEBE
-LOTERIA PRIMITIVA
-KINIELAK
-PELUKEROA


MariCruz
LENCERIA
DONEZTEBE 948 450 112 - ELIZONDO 948 581 301



PIKABEA
mujer
Ongi pasa bestak!
Bestetan %20ko deskontu berezia eskaintzen dizugu
Nagusia 5 (elizaren ondoan)
948 450 207 - DONEZTEBE

Egin behar dituzun lan txiki horientzat,
Gremioen koordinazioa
Alicia T. Erlanz
SERVI-LAN
ofiziale guztiak SERVI-LANen
Elizagibela, 5 · DONEZTEBE · Tel. 948 456193 Fax.948 450760

---

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV
Ingineru teknikoa industriala
* Bulego teknikoa: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
* Instalazio elektrikoak
* Etxeko eta industriako elektrizitatea
* Enpresen mantenimendua, etab...

---

Doneztebe autoeskola
A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
Besta onak pasa !
☎ 948 451 929
Leitzako errepidea, 2 behea · DONEZTEBE

---


TABERNA ZAHARRA
Gizon eta emakumeendako arropadenda
Kortinak eta etxerako arropak
Merkatarien Karrika 11
Tfnoa: 948 450007
DONEZTEBE

---

Bar EL CAFE
Ongi pasa herriko bestetan!
MARTXARIK ONENA
Pintxoetan espezializatuak · Bokadilloak
Parrokia 3 · © 948 450318 · DONEZTEBE

---

BAR TITI
Ameztia, 7 · ☎ 948 450 271 · DONEZTEBE

---

Marta ileapaindegia
© 948 450 751 · DONEZTEBE

---

ARIN
Allianz Aseguruak
· auto eta kamioietan aseguruak
· etxebizitza eta empresen aseguruak
· Bizitza aseguruak
· Pentsio planak
· etab…
Parrokia, 21 · DONEZTEBE
Tel: 948 450 266 Faxa: 948 450 617

---


Mendaur Motor
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!!
Leitzako errepidea
Tfnoa: 948 450 333
DONEZTEBE

ALBAITERITZA
ZENTRU TEKNIKOA
Juan Ramon Ostiz
Karrika Nagusia 1. Tfnoa: 948 450 591 - DONEZTEBE

Maderas Zabala S.A
Kortinarako sistemak
Bertako eta inportazioko zurak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak
Tel.: 948 450135 · 948 450632
Faxa: 948 450498 · DONEZTEBE

RUIZ mobleak
- Haritz, gaztain, eta pinu egurrez egindako mobleak
- Dekorazio artikuluak
Merkatarien karrika, 18 · Tfnoa: 948 450110 · DONEZTEBE

kider
Tarima
Flotagarria
Tel.: 948 456 010 - Faxa: 948 456 148
DONEZTEBE

ROBERTO ORDAX
- Igeltsuzko dekorazioa
- Pladurrezko sabaiak
- Sabai- desmuntagarriak
- Pintura lanak orohar
- Zurgintza-lanak bernizatzea eta lakatzea
948 450351 - 619 584 046 - DONEZTEBE

Pitti
eskabazioak



Tfnoa:
616 513 491
Mendialdea etxea, 34
ZUBIETA

ttipi-ttapa telebista
bestetako
irudirik
ederrenak
gorde nahi
dituzula ?
deitu
948 635 458
telefonora

RUIZ okindegia
Autozerbitzua
Karrika Nagusia15 DONEZTEBE
Tfnoa 948 450 037

Beni arraindegia
arrain freskoa eta kongelatua
enkarguak hartzen dira
Ameztia karrika · DONEZTEBE · Tel: 948 456 188

HONORIO TABERNA
Gizaseme eta
Emakumeendako
Boutique
Merkatarien karrika 29, DONEZTEBE • 948 450 109

· Emakume eta gizonendako arropa
· Laneko arropa
· Mertzeria
· Etxe barnekoak:
Bisilloak, kortinak, edredoi nordikoak, maindireak, toallak, alfonbrak ...
· MOSHY almohadak
1940 urtetik
Lácar Etxea
Sta Luzia karrika, 3 · DONEZTEBE · 948 450 162

KONGELATUAK:
Albondigak
Urdaiazpiko,
oilasko, piper
eta arraultze kroketak
Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK
Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko
janaridendetan
Jaime Urrutia 35 · ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO



## Musika ezberdinak adituko dira Burrunbak antolatutako kontzertuan

## UZTAILAK 1 ORTZIRALA

**09:00etan:** Argi Soinuak CORCOR txarangarekin.
**11:00etan:** GORRITIren erakustaldia.
**12:00etan:** Buruhandi eta kankailuak.
**16:00etan:** Herriko Plater Tiraketa
**19:30etan:** Betizuak Merkatuko Plazan
**22:00etan:** GAZTEEN KONTZERTUAK
**01:00etatik**
**3:30etara:** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.







Izoztuen txokoa
Aukera zabala janari izoztuetan
Elizagibela 7 · ✆ 948 451 999 · DONEZTEBE


ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOA
Tel eta Faxa: 948 450 289
Parrokia 17• DONEZTEBE
CASA
OSTIZ


SALDIAS
HARATEGIA
Bertako haragi freskoetan
espezializatuak
Etxeko txistorra
Karrika Nagusia, 21 · ✆ 948 450191
DONEZTEBE


Dia %
Autoservicio
Antxone
ongi pasa herriko bestak!
Dia %
Tel: 948 451 672 - DONEZTEBE


s@re
INFORMATIKA AKADEMIA
ZIBERGELA
- Kurtsoak:
Ofimatika, Mekanografia, internet...
- Jokuak sarean
- Imprimatzeko aukera
- Web orrialdeak egiten dira enkarguz
- Bestelako lanak enkarguz...
Tel: 948 450 755 · DONEZTEBE















## UZTAILAK 2 LARUNBATA

**09:00etan:** Argi soinuak Txarangarekin.
**11:00etan:** Futbol Txapelketa.
**12:00etan:** Buruhandi eta erraldoiak.
**12:00etan:** Mus txapelketa.
**14:30etan:** Herri Bazkaria Intzakardin
**19:00etan:** Betizuak Merkatuko Plazan
**20:30etan:** Santa Luzia Plazan KARAOKEA
**22:30etan:** Su artifizialak Astondoa pirotekniaren eskutik
**00:30etatik 03:30etara:** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin



# Txaranga eta karaoke doinuak ez dira faltako herri bazkarian




Aldabe TAXIa
goxo -goxoa eta bixi-bixia
Iosebe Aldabez galdetu
DONEZTEBE
☎ 610 21 33 26 - 948 45 06 87

PEUGEOT
CITROËN
EDERKI tailerra
Peugeot eta Citröen Agente Ofiziala
24 orduz grua zerbitzua
Hidraulika "latigilloen" moldaketa
Leitzako bidea · ☎ 948 450525 · DONEZTEBE

OIARTZABAL

Mug: 608 978 210
DONEZTEBE
ESKABAZIOAK

FZ Zaldua Fotografos
Para tu reportaje de boda nuevo estilo y diseño digital

Elizondo 948 580491 * Doneztebe 948 450364














## Haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan



## UZTAILAK 3 IGANDEA

**08:00etan:** Betizuak Merkatuko Plazan
**09:00etan:** Argi soinuak Txarangarekin.
**Goiz eta arratsaldez:** Tren neumatikoa eta puzgarriak udal igerilekuan.
**12:00etan:** Meza Nagusia.
**12:00etan:** Buruhandi eta erraldoiak.
**13:00etan:** Lesakako Bandaren kontzertua.
**16:00etan:** Aizkora apustua eta Sthil Timbersports-en erakustaldia
**19:00etan:** Betizuak Merkatuko Plazan
**20:00etatik 22:45etara:** Dantzaldia JALISKO BAND eta MARIATXI taldearen eskutik.
**23:00etan:** Besten akabaila eta GAIXOA NI.




KONTXA

Gasolindegia

✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu

✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

KONTXA

kafetegia

✓ Bokadiloak eta Platerak

✓ Ogi egin berria



Ongi pasa bestak!

Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE





ZERAMIKAK (venix, porcelanosa, aparici, porcelanato)

ALMACENES MENDI TXURI

- Etxegintza eta burdindegi materialak
- Teila frantsesak (Guiraud, TBF)
- Egurrezko sukaldeak
- Tximiniak

✆ 948 450 305/948 450 068 - DONEZTEBE




✓ Gasolindegi zerbitzua
✓ Etxez-etxeko gasoil-zerbitzua
✓ Auto-garbitzaile automatikoa
✓ Presio bidezko garbiketa
✓ Autoaren barneko garbiketa

Leitzako errep, 49 · DONEZTEBE
Tel: 948 451 679 · Faxa: 948 450 857

# SANTESTEBAN
## Tailerrak

- Salmenta: berriak eta bigarren eskukoak
- Mekanika, txapa eta elektrizitatea
- Garabi zerbitzua 24 ordutan

RENAULT



Leitzako bidea · DONEZTEBE
Tel: 948 450 282 · 948 450 597



# MIGELENA Anaiak

· Erlojudenda · Bitxidenda · Sukalde eta bainuko altzariak
· Etxetresnak · Sukaldeko tresneria · Zerbitzu teknikoa

Ameztia 1 eta 5 ·DONEZTEBE · Tfnoak: 948 450 126 · 948 450 925 · Mug: 677 525 292 · 689 004 841



Osorik egurrezkoak diren betiko mobleak, orain tendentzia modernoagoekin

Muebles
Telletxea

Rosa Seminario 12
Tel: 948 450 258
948 451 811
DONEZTEBE
telletxea@eniac.es






**Doneztebeko Udalak besta zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guziei**




# APEZTEGIA BERRIA, S.A.

Burdindegia · Ferretería




Elizagibela karrika, 1 · ☎ 948 450 994 · DONEZTEBE

BAZTAN

# Nafarroako bandera ez jartzeagatik Balleko Udala kondenatu dute

## Udalak «asmo txarrez» jokatu duela dio Iruñeko Auzitegiak

**ttipi-ttapa**

Balleko Etxean Nafarroako bandera ez erakusteagatik Baztango Udala kondenatu du Iruñeko Auzitegiak. Honela, legera egokitu beharko du Udalak, epaiketaren gastuak ordaintzeaz gain. Joan den urteko abenduaren 28an Nafarroako Gobernuak jarritako errekurtsoa onartu zu Auzitegiak. Balleko Udaleko akordioek Nafarroako Ikurren Foru Legea ez zutela betetzen zioten errekurtso horretan. Iruñeko Auzitegiaren erabakiaren arabera, *«Udalaren ekimenean asmo txarra»* dago, Balleko Etxearen kanpoko aldean ez direlako Espainiako eta Nafarroako ikurrak ageri. Udal erakundeetako kanpoko aldeetan Nafarroako bandera jarri behar da goizeko 8etatik arratseko 8etara eta barneko aldean beti jarri behar da, Nafarroako Ikurren Legearen arabera. Froga gisara, egunkarietako argazkiez gain, foruzainek egindako txostena ere erabili du Iruñeko Auzitegiak.

### Baztango paisaiak

Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino margolariek «Baztango paisaiak» ikastaroa emanen dute abuztuan. 25 lagunendako lekua izanen denez, lehenbailehen izena eman behar da Arizkunenean. Haurrendako grabatu eta estanpazio ikastaroa ere izanen da ekainaren 27tik uztailaren 6ra. Eneko Perez eta Sonia Ilzarbe dira irakasleak.



ARGAZKIA: ONDIKOL

***Elizondoko abesbatza berriz ere lanean***

**1942an sortu zen Elizondoko abesbatza eta hainbat urtez zuzendari izan zen Juanito Erasoren heriotzaren ondotik aunitzek desagertutzat ematen zuten. Baina ekainaren 4an, Isabel Lakar lesakarraren zuzendaritzapean emanaldia eskaini zuten Elizondoko elizan eta larunbat honetan Leitzan kantatu behar zuten. 22 kantari berri baditu abesbatzak eta bertze 3 teknika lantzen ari dira, abudo koralean sartzeko.**

# Pilotarien Batzarra igande honetan eginen da Elizondon

## Pilotarekin lotutako hiru nafarrei omenaldia eginen zaie

Pilotarien Batzarra elkarteak bere urteko besta eginen du igande honetan, ekainaren 1ean, Elizondon. Hogeigarren aldiz eginen du urteko besta hau eta laugarren aldia da Nafarroan egiten dela, 1990ean Lizarran, 1995ean Lesakan eta 2000. urtean Leitzan egin zirenen ondotik. Pilotarien Batzarrak bazkideak ditu Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Iparralde, Nafarroa, Errioxa eta Katalunian. Aurtengoan omenduko dituztenen artean, pilota munduarekin lotura berezia duten hiru nafar ere badaude: Zugarramurdiko Juan Etxenike, Jose Joaquin Ziganda eta Florentino Ibarra, Beintza-Labaiengo guante egilea. Urteko batzar honetarako prestatu den egitarauaren barnean, Arizkunenea kultur etxean ikusgai daude 18:00etatik 21:00etara pilotari buruzko erakusketa eta lehen aldiz egin den argazki lehiaketara aurkeztutako lanak.

ELIZONDON EREKI DUGU!
abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK
PVC eta ALUMINIOA
• ateak • leihoak • kontraleihoak
• manparak
• zeramikak (fabrikako prezioetan)
• kontsumo gutxiko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 686 970 725
maxene@terra.es


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

## BAZTAN

# Arizkungo Sanjoanak ekainaren 23tik 26ra

Elkartasuna frontona moldatzen bada, hainbat pilota partidu jokatuko dira



Artxiboa

**Umore ederra izanen da aurtengo San Juan bestetan ere.**

### Ortzegune 23
#### San Joan bezpera

**12:00etan** Besten hasmenta izeteko, dianak, txupinazo eta "Gazten Luntxe". **13:00etan** Txopo goratzia. **14:00etan** Txopo goratzailendako bazkarie. **17:00etan** Arizkungo Elkartasuna frontonian (konpontzen badaaaaa) pilota partide: Olaizola II Irujoren kontra. **18:00etan** Paintball lehiaketa herrikoia. Ilunabarrian San Juan suek eta ezkil jotzia. Ondotik Antzerkie. **22:30etan** Baztan zopak. **24.00etatik akitu arte** Dantzaldie IÑAZKI taldiakin. **Goizaldera** gasna jatia.

### Ortzileria 24
#### San Joan egune

**10:00etan** Dianak. **11:00etan** Meza nausie. Ondotik Mutil dantzak eta herriko luntxe. **16:30etan** Plater tiraketa herrikoia. **17:00etan** Elkartasuna frontonian (Udaletxia mugitzen badaaaa) pilota partide: Otxandorena-Xala; Goñi III-Bengoetxea VI-n kontra. **18:00etan** Antzara Jokue. **20:00etatik 22:00etara** Dantzaldie, TXIMELETA taldiakin. **22:00etan** Gaita, mutil dantzak, zortzikoa,... **24:00etatik akitu arte** Dantzaldia TXIMELETA taldiakin. **Goizaldera**, azken zirrildendako ziztor jatea.

### Launbeta 25
#### Zikiro Egune

**10:00etan** Dianak. **12:00etan** Mus iñezture. **14:00etan** Zikiro jatia, txarangak alaiturik. Ondotik Poteoa Doneztebeko txarangakin. **17:00etan** Elkartasuna frontonian (fundamentua iten badu-teeee) pilota partide: Zearra-Titin; Beloki-Eugi. **20:00etatik 22.00etara** Dantzaldie TXIMELETAkin. **22:00-etan** Gaita, mutil dantzak, zortzikoa,... **24:00etatik akitu arte** dantzaldia TXIMELETA taldiakin. **Goizaldera** ordu hoietan ongi direnendako zinger jatea.

### Igendia 26
#### Haurren Egune

**10:00etan** Dianak. **11:00etan** Haurren jokuek: ginkana, puzgarriek... **14:00etan** Haurren bazkarie. **17:00etan** Puzgarriek eta haurrendako herri kirolak. Ondotik Txokolatada **17.30etan** Elkartasuna frontonian (berrie iten badaaaaa) pilota partide: Lasa-Goñi II, Apeztegia-Nagore **18.00etan** Marro erakusketa plazan. **20:00etatik 22:00etara** Dantzaldie AGERRALDEkin. **22:00etan** Gaita, mutil dantzak, zortzikoa... **23:00etatik 01:00etara** Dantzaldie AGERRALDEkin. **Ondotik** Sasoinian direnendako "Gaixoa Ni" eta txopo botatzia.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
✆ 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa • ARIZKUN



Nekazaritza eta industria tresnen konponketa, salmenta eta alokairua
✆ 948 453425
ARIZKUN

DOLATXEA OSTATUA
Bestak ongi pasa!
✆ 948 453002 • ARIZKUN

ARIZKUN zerrategia
Zerrategia
Zurezko teilatuak
✆ 948 453 304
Dantxarineako errep.
ARIZKUN

BAZTAN

# Erratzuko Sanpedroak ekainaren 28tik uztailaren 2ra

## Azken egunean pala partida bikainak ikusteko modua izanen da



Argazkia: Xabi IBARGARAIk utzia

**Zikiro-jatearen ondotik karaokea, musika, sokatira eta zozketak izanen dira aurten.**

### Asteartea 28
### Bezpera Egune

**19:00etan** futbito partida. **20:00etan** txupinazoa eta ezkil jotzea. **21:00etan** Baztan zopak Kastonean.

### Asteazkena 29
### San Pedro Egune

**10:00etan** argi soinuak. **11:00etan** Meza Nagusia, udaleko ordezkariekin. **12:00etan** mutildantzak. **12:30etan** luntxa Kastonean. **18:00etan** gymkana ausartzen direnen artean. **20:00etan** dantzaldia SALABERRIrekin. **22:00etan** mutildantzak. **0:00etan** dantzaldia SALABERRIrekin aspertu arte.

### Ortzegune 30
### Denen Egune

**10:00etan** argi soinuak. **11:00etan** kars eta gaztelu puzgarriak. **12:00etan** pintxo lehiaketa. **14:00etan** haurren bazkaria Kastonean. **14:00etan** piknika Apaten. **16:00etan** kars eta gaztelu puzgarriak. Ondotik Eritz magoa. **20:00etan** dantzaldia SALABERRIrekin. **22:00etan** mutildantzak. **23:00etan** PANPI PORTUGAL, Iparla ostatuan. **0:00etan** dantzaldia SALABERRIrekin.

### Ortzilerie 1
### Zikiro jate Egune

**10:00etan** argi soinuak. **12:30etan** txikiteoa. **14:00etan** zikiro bazkaria frontoian. Ondoren karaokea, Frantxisko eta bere akordeoia, sokatira, magra, ardoa eta ogi zozketa. **20:00etan** dantzaldia FRANTXISKOrekin. **22:00etan** mutildantzak. **0:00etan** dantzaldia ETXABE Anaiekin.

### Launbeta 2
### Azken Egune

**10:00etan** argi soinuak. **17:00etan** pilota, pala partidak. Paleta larruzko pilotaz: Balenzia eta Txiki, Aiarra eta Salinasen kontra (Munduko txapeldunak). Pala motzean: Zozaia eta Ibañez; Urriza eta Ibargaraien kontra. **19:00etan** bertso poteoa, Julen Zulaika, Julen Zelaieta, Iñigo Izagirre eta Iñigo Manzisidor «Mantxi» bertsolariekin. **20:00etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **22:30etan** mutildantzak. **23:00etan** su artifizial ikusgarriak. **0:00etan** gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin.

ALEMAN
zerratégia
• Teilaturako estrukturak (douglas, pinua, haritza)
• Tarima
• Portxeak tamaina egokian
Frantziarako errep. z/g
ERRATZU
✆ 948 453173

Albantzenea
OSTATU-DENDA
Santi Dendarieta
Albantzenea Ebea, ERRATZU · Tfnoa: 948 45 31 12

ttipi ttapa
www.ttipi.info
ttipi-ttapa@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

ZUBIPUNTA
OSTATUA
Besta onak opa dizkizuegu.
✆ 948 453248
ERRATZU

IPARLA
OSTATVA
• Egunero bokata eta pintxo beroak
• Igandetan salda
• Giro ona
Aduana karrika
✆ 948 453153
ERRATZU

## SENPERE





ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Goitian, maiatzaren 27an egin zen amen bestan herriko bi ama, Paulette Douat elbarrundarra eta Marie-Jeanne Guilçou amoztarra, omendu zituzten Herriko Etxean. Ezkerrean, Olha auzoan lasai bizi diren Borda jaun eta andereak urrezko eztaiak ospatu dituzte maiatzean.**

# Jondoni Petri kari bestak uztailaren lehenetik seirat ospatuko dira aurten

Primak uztailaren 5ean eginen dira herriko kirol zelaian

**Franck DOLOSOR**

Uztailaren lehen egunak herriko bestak, eta agian eguzkia ere ekarriko ditu aurten. Sei egunez, animazio andana eginen da aurten ere. Beti bezala, Jondoni petrikariren bestak zikiro jatearekin hasiko dira. Ondoko egunetan, musika nagusituko da, aurten, Saiberri, Magali Zubillaga, Ikastola haurrak, Maider Zigarroa, Kolpe K, Patxa Mama, Root Systeme, eta Tabasco kantariekin eta taldeekin.

Pilota partidez eta futbol lehiaketez gain, natura eta abere zaleek hitz ordu haundia izanen dute aurten. Primak uztailaren 5ean astearte goizarekin eginen dira.

### *Senpere kaskoz kasko*

Senperen kaskoz kasko ibilaldia uztailaren 10ean igandearekin eginen da. Ateraldia goizeko 7etan hasiko da.

### *Lizardiako itzulgunea*

Lizardiako itzulgune berria inauguratu dute berriki herriko, kantonamenduko eta departamenduko hautetsiek. 233.000 euro pasa gosta den tresna berri hori baitezpadakoa zen egunero 18.000 ibilgailu pasatzen baitira Lizardiatik.

Itzulgune berriak segurtasun gehiago eskaintzen du lan zelaitik bide haundirat gateko. Ahetzeko bidea ere arrimatzen hasi dira.






SARA

# Manex Bergarari omenaldia eskainiko zaio ekainaren 19an

## Goizean lore eskaintza eta liburuaren aurkezpena eginen dira eta eguerditan herri bazkaria




UTZITAKO ARGAZKIA

**Manex Bergarari buruz idatzitako liburua erosten ahako da omenaldiaren egunean eta hortik lekura salgai izanen da saltoki batzuetan.**

**Laetitia, Sandrine eta Krispin**

Marie Pradère eta Mixel Guerendiain-ek Manex Bergararen bertsuak argitaratzearen xedea zuela zonbeit urte beren baitan zuten eta azkenean 2002ko udazkenean abiatu ziren bide hortatik.

Manexen bertsuak beti asmatuak dira kantatzeko moduan emaiteko ohizko aire herritar batean.

Berarekin hasi ziren liburu hortan agertzen diren idatzien zentzua azaltzen. Zorigaitzez Manexek 2003ko ekainaren 22an utzten gintuen gaitz bortiz baten ondorioz, bainan lan hori aintzina ereman dute. Edozein gertakari, bazkari bat, ihizi solas eta hainbat gai estakulu zituen Manexek bertsuak idatzi eta kondatzeko.

Domaia izango zen bere idazteko trebezia eta talentua jende guttiren ganik ezagutua izatea, horregatik liburu bat ateratzen da. Kari hortara omenaldi bat antolatua da Saran ekainaren 19an.

Goizeko 11etan lore eskaintza egingo da bere hil hobian, hilarri berrietan.

Eguerditan porikiroldegian liburu berriaren aurkezpena egingo da, bertsu eta kantuak izango dira, ondotik zintzur bustitzea eta bazkaria izango dira. Txartelak salgai dira bazkariarentzat Herriko Etxeko Edantegian (05 59 54 25 19). Liburua erosten ahalko da egun berean eta hortik lekura salgai izanen da saltoki batzuetan.

### *Kontzertuak elizan*

Kantaldi batzuen parada badugu momentu honetan sarako elizan. Hala nola Goraki abesbatzak kontzertu bat eskaini du ekainaren 10ean ostiralarekin. Beste talde bat entzuten ahalko da ekainaren 21 asteartearekin arratseko 9etan.

### *San Josepe eskola bestan*

Urtero bezala San Josepeko haurrek beren eskolako beren eskolako besta ospatuko dute ekainaren 25ean. Ikusgarri bat izango da arratsaldean eta gauean afari bat antolatua izang da porikiroldegian deneri idekia.

TIBURCIO GORENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago, 15 - Tlno. eta Faxa: 948 580814 - ELIZONDO





BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ttipi ttapa
400. zenbakia
6.000 harpidedun
www.ttipi.info
ttipi-ttapa@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

AZKAIN

# «Pastore Lore» besta arrakastaz burutu zen

## Larrungo pottokak elgarretaratu zituzten Zazpi Iturrin

**Angela eta Xamo**

Ekainaren 4-5eko asteburuan Azkaingo Herriko Kultur eta Turismo Bulegoak, Pastore Lore eguna antolatu du. Larunbat gauean, ahate jokoaren moldaketa bat egin dute loreak emanez ahateen ordez. Ondotik, plazan bertan «Hildago» deitu filmaren hedapena izan da.

Igandean, goizeko 7etatik goiti, abeltzainak eta laguntzeko gogoa zutenek, Larruneko bazterretan ibili dira pottokak elgarretarazteko, Zazpi Iturriko hesi batean. Pottoka guztiak elkartu eta, txalapartariak aritu dira eta ondotik Xumai Muruak bertsu batzu atera ditu.

Gero, abeltzain eta bihotz oneko jendeak pottokak inguratu dituzte, azkaingo herrira jausteko. Harrobietara ailegatu eta, zaldizkoak tradiziozko jantziekin desfilearen aitzina hartu dute pottokak eramaiteko elizaren gibelean den zelaira. Han bertan, Benat Achiary-k kantuz errezibitu ditu. Honen ondotik, bertsu batzu eta gero, prezio ezartze desberdinak izan dira: pottokak, bizikleta loreztatuak, marrazkiak...

Arratsaldean, ardi ilemoztea eskuz eta elektrikaz izan da. Azkaindarrak bat elkarteak "pilotasoro bote luze" partida antolatu du. "Bote luzea" errebote aurreko jokoa da, bainan esku huska eta zelai batean jokatzen dena. Animazio desberdinak atxemaiten ahal ziren haurrentzat: pottoken gainean itzulia egin, behoka biltze erakuspena, hertze agertzea... Egun guzian, erakusketak baziren, herrian bertan: eztia eta erleen lana, lihoa (landatik oihal egite arte) etabar... Eguna mutxikoekin bururatu da, giro on batean.





Argazkiak: Angela

**Ekainaren 5ean Larruneko bazterretan ibili dira pottokak elgarretarazteko, Zazpi Iturriko hesi batean.**

### *Pala lehiaketa*

Plazan ostatuak antolatzen duen urteroko pala txapelketa ekainaren 20an abiatuko da.

Parte hartzeko bietatik bat Azkaindarra izan beharko da. Hiru sail desberdin izanen dira gizonendako, sail bat beteranoendako, eta hirugarrena neskendako.

13.garren edizioa izanen da aurten.

Izenak emaiten ahal dira plazan ostatuan, edo zenbaki hortara deitu behar da: 05.59.54.00.80. (Parte hartzea: 12 euro pertsonakoa).










ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458



Zeure uda
Teknia Corporaen
hasten da
Tel.: 943 660 150
Teknia
CORPORAE
10 Gorputz sesioko bonoarekin, aurpegi tratamendu pertsonalizatua opari
5 Aurpegi sesioko bonoarekin, gorputz tratamendua opari
(Promozio hauek trukagarri dira antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuekin)
IRUNGO BIHOTZEAN.
Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZen ondoan) · 20302 · Irun · info@tekniacm.com

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Mikel Dalbret margolariak erakusketa egin du

## Barrentxekobordan ikusgai izan dira bere lanak ekainaren 4tik 12ra

Margari eta Koro

Ekainaren 4tik 12ra irekita izan du Mikel Dalbret margolariak Barrentxekobordan bere lanaren erakusketa.

Margolari honek ausardia eta berezitasuna erakutsi du tailerra jarria duen baserrian berean erakusketa antolatzerakoan. Ausardia erran nahi dugu, Barrantxekoborda herritik 2 kilometrotara dagoelako, gainera azkeneko kilometroa asfaltatu gabeko mendi pista delako, eta gainera, azkeneko metroak oinez egin behar direlako (autorik ez da sartzen etxe ondoraino). Aldi berean erran behar da horrek berak eman diola xarma berezi bat erakusketari, koadroetaz gain, inguruetaz gozatzeko aukera paregabea eman duelako.

Eta ez zen hori eskaini zuen berezitasun bakarra: ikustera joan zirenen artean bere koadro bat zozketatuko da heldu den ekainaren 25ean 7etan "Altzatenea" ostatuan.

### Ez omen Zugarramurdikoak

Madaria, Olasur eta Etxartea auzoetako baserri batzuk aspalditik gatazkan dabiltza legez ere Zugarramurdiko Herriko Etxerat egiteko (elizaz, kanposantuz, medikuz eta eskolaz hala egiten baitira).

Bainan ez da manerarik izan. Gan den hilabetean Nafarroako Gobernuak erabaki zuen ez duela beharrezkoa ikusten horrelakorik egitea. Berek erabiltzen dituzten hitzetan hau erran dute: *«No hay motivos notorios de necesidad o conveniencia económica o administrativa».*

Behar bada agindu hori eman duena baserri hauetan batetan bizi balitz, bertze gisako erabakia hartu izanen zuen.

### Gaupasa larunbat honetan

Gainean dugu jadanik gau-pasako besta: heldu den 18an izanen da. Musika aldetik "Txakurrak", Xabaltx kantaria eta "Jalisko band" arituko dira; eta antzerkian parte hartuko dutenak hauxek dira: Zubietako joaldunak, "Deabru beltzak" taldea, eta herriko sorginak.





Argazkia: Koro

**Goitiko argazkian Mikel Dalbret ageri da, zozketatzen duen koadroarekin. Beheitian, Barrentxekoborda, erakusketa-areto bilakatu den baserria.**

ArkiLanak SL
ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa
Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta:arantxaci@terra.es
Santiago, 55 ELIZONDO
ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
URBANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONTSULTAK
LUR NEURKETAK

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ-MUGAIRI
· Jaki tipikoak
· Etxeko giroa

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. km
948 599 131 - URDAZUBI



ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
ARIZKUN

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km
948 599 280 · URDAZUBI



# EZKONTZAK

**Nicolas Sabate Ferris** eta **Marie-Noëlle Jeannine Luce Ghislaine Krementscki**, Senperekoak, maiatzaren 14an.

**Nicolas Raymond Daguerre** eta **Christelle Lopez**, Senperekoa, maiatzaren 28an.

**Jérôme Jean-Philippe Altzuguren** eta **Pascale Zubieta**, Senperekoa, maiatzaren 28an.

**Iñigo Dorronsoro Lazkano** eta **Maria Iparragirre Baleztena**, Gorriti eta Leitzakoa, maiatzaren 14an.

**Javier Ros Ganuza** eta **Irene Arrizurieta Bildarraz**, Mutiloabeheiti eta Leitzakoa, maiatzaren 28an.

**German Castillo Lazkanotegi** eta **Beatriz Franco Muxika**, Bera eta Donostiakoa, maiatzaren 28an.

**Isaac Bertiz Goizueta** eta **Doniñe Arrieta Zalakain**, Lesaka eta Oiartzungoa, maiatzaren 21ean.

**Sotero Etxandi Juanikotena** eta **Encanacion Andueza Oskoz**, Arraioz eta Doneztebekoa, ekainaren 4an.

**Jose Manuel Da Silva Vides** eta **Beatriz Lertxundi Sansiñena**, Elizondokoak, maiatzaren 28an.



# SORTZEAK

**Ainhoa Sabaloue Irazu**, Senperekoa, maiatzaren 12an.

**Kemmy Riesco**, Senperekoa, maiatzaren 10ean.

**Jules Pierre Paul Kappler**, Senperekoa, maiatzaren 21ean.

**Jade Proux**, Senperekoa, maiatzaren 23an.

**Zoila Sacha Gallatée Arraiago**, Senperekoa, maiatzaren 13an.

**Manex Zabaleta Balanzategi**, Leitzakoa, maiatzaren 20an.

**Kenai Garcia Curto**, Berakoa, ekainaren 1ean.

**Ihintza Udaeta Zubieta**, Berakoa, maiatzaren 30ean.

**Imanol Mesa Garmendia**, Lesakakoa, maiatzaren 18an.

**Unax Ordoki Etxepeteleku**, Lesakakoa, ekaianaren 1ean.

**Naroa Bikondo Jaurena**, Erratzukoa, maiatzaren 29an.

**Xanti Bernet**, Sarakoa, maiatzaren 24an.

**Mikel Iturria Martinez**, Etxalarkoa, maiatzaren 25ean.

**Iñaki Dolosor Caballero**, Senperekoa, maiatzaren 16an.

# HERIOTZAK

**Jean Bertrand Dugay**, Senperekoa, apirilaren 9an.

**Ana Perez** (Duhart-en alarguna), Senperekoa, apirilaren 15ean.

**Clémence Cécile Winther** (Vermeulen-en alarguna), Senperekoa, apirilaren 29an.

**Pierre Jaouen**, Senperekoa, maiatzaren 1ean.

**Marie Jeanne Berasategi** (Ibarraren alarguna), Senperekoa, apirilaren 26an.

**Georges Barquez**, Senperekoa, apirilaren 27an.

**Norberto Iribarren Urrotz**, Arizkungoa, maiatzaren 27an, 87 urte.

**Esperanza Aldazabal Bengoetxea**, Berakoa, maiatzaren 25ean, 95 urte.

**Luis Suarez Ruiz**, Lesakakoa, maiatzaren 25ean, 48 urte.

**Manuel Irungarai Juanikotena**, Iruritakoa, maiatzaren 31n, 83 urte.

**Jose Maria Iparragirre Apezetxea**, Arantzakoa, ekainaren 2an, 60 urte.

**Margarita Iparrea Iribar**, Elizondokoa, ekainaren 3an, 55 urte.

**Jose Altzuguren Mikelperizena**, Berakoa, ekainaren 3an, 80 urte.

**Epifania Perurena Arribillaga**, Leitzakoa, ekainaren 3an, 78 urte.

**Jose Maria Laurnagarai Saldias**, Arraiozkoa, ekainaren 5ean, 59 urte.

**Marie Rose Berroa**, Sarakoa, maiatzaren 25ean.

**Etienne Barrenetxe**, Sarakoa, maiatzaren 18an.



## Luis Mari MAIA ARIZTEGI

**4. URTEURRENA**

*Nahiz eta gure artetikan*
*urrutira joan*
*beti izanen zaitugu*
*gure bihotzean.*

**EMAZTEA ETA SEME-ALABAK**

Etxalarren, 2005eko ekainaren 10ean



## Pili GARTXITORENA ETXEBERRIA

*Ezin eskertuz Piliri aio ertera*
*etorri zinetenok.*
*Ezin besarkatuz hainbertze eta*
*hainbertze izan baitzineten.*
*Ezin atzenduz gugana hurbildu*
*zinetenok; zuen deiak...*
*Berroetako xoko hontatik*
*esker mile.*

Berroetan, 2005eko ekainaren 10a



## José ALZUGUREN MIKELPERIZENA

**Beran hil zen 2005eko ekainaren 3an, 80 urte zituela.**

*Argi bat itzali da hemen lurrean*
*Berri bat biztu da han zeru ederrean*
*Gure oroimenean izanen zara betiko*
*Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

**Julene eta Gaizka bilobak.**




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Iñaki LARRALDE** *Lesakako pilotari profesional berria*

## DATUAK...

• Iñaki Larralde pilotari lesakarrak profesionaletako debuta egin du maiatzaren 29an Bergaran. Unai Apeztegia aurtiztarra lagun izan zuen gibelean eta 22 eta 15 irabazi zieten Galarza V.a eta Arroyo II.ari.

• Aspe enpresak hiru urteko kontratua egin dio aurrelari lesakarrari eta estraineko partidan itxura polita eman zuen. Ausart aritu zen eta hamabortz tantu egin zituen. Halere, hamar pilota ere galdu zituen.

• Belaunetik lesionatua ibili baldin bada ere, GRAVN txapelketa irabazi du aurten.

# «Aunitz arriskatzen dudanez, tantuak egin egiten ditut baina baita galdu ere»

**Aitor AROTZENA**

Gustora zegoen Iñaki Larralde pilotari lesakarra profesionaletan debuta egin eta biharamonean. Lehen partida hori irabazi egin zuen eta komunikabideetan, aurrelariaren ausardia eta bolea goraipatzen ziren. Horiek dira lesakarraren ezaugarri nagusiak, hain zuzen: *«Nik aunitz arriskatzen dut eta tantuak egin egiten ditut, baina baita galdu ere. 15 egin eta 10 galdu nituen, beraz eginak badira, baina galdutakoak ere bai. Zer hobetua badut eta hiru urte hauetan lan eginen dut. Ahalik eta gehiena hobetzen saiatuko naiz»*.

Lehen partida horri dagokionez, garaipenak ezustean hartu zuela onartu du Larraldek. *«Ez nuen espero lehen partida hori irabaztea, baina atzelari ona jarri zidaten eta gustora nago»* erran digu Larraldek. Noski, aldaketa ere somatu du afizionatuetatik profesionaletara pasatzerakoan: *«Atzelariek segurantza gehiago dute, afizionatutan gehiago galtzen dute. Hasieran arraro xamarra egin zitzaidan apostulariak oihuka aditzea, baina gero ahazten zara eta ez dituzu somatzen»*.

**«Pixkanaka hobetu eta ahalik eta goitiena allegatu nahi nuke. Estelarretan aritzeko aunitz jokatu behar da eta hori zail dago. Hobetzen joatearekin konforme izanen nintzateke»**

### Pixkanaka hobetzeko helburua

Pilotan hasten diren haur aunitzen ametsa izaten da profesionaletan aritzea. Hori bete du Larraldek eta etorkizunerako ez du bertze amets berezirik: *«Pixkanaka hobetu eta ahalik eta goitiena allegatu nahi nuke. Estelarretan aritzeko aunitz jokatu behar da eta hori zail dago»*. Gazte eta afizionatu mailako palmaresa aztertzerakoan, 2003an promesas mailan Diario Vasco txapelketaren finalera ailegatzea eta aurten GRAVN irabaztea aipatzen ditu aurrelari lesakarrak. 2002an, gazte mailan, euskal liga ere irabazi zuen, pilotari gazteena izanik eta 2003an, gazte mailako lau terdiko Nafarroako txapelketa, Guillermo Mazo memoriala irabazi zuen. Lau terdian, kantxa osoan banaka, binaka... *«Gustoen binaka aritzen naiz, manomano lan gehiago egin behar da eta nahiago dut binaka aritu»*. Gazte mailan lortutako emaitza hauei esker, duela bi urte aurrekontratua sinatu eta ordutik honat Aspeko teknikariekin entrenatzen aritu da: *«Hasieratik fisikoki hobetzen aritu gara, gero astean behin edo bitan Jokin Etxanizekin entrenatzen dugu pilotarekin»*. Larralderekin batera, badirudi abudo debutatuko dutela Asegarcen Retegiren eta Arretxeren semeek, bertzeen artean. Aurrelari belaunaldi berria datorrela dirudi: *«Bai, denak adin berekoak gara, elkarrekin arituak eta ea eurek ere debutatzeko suertea duten»*.

HERRI KIROLA

# Berako Gure Txokoa emakumeen sokatira taldea berriz ere lanean

## Duela hameka urte desagertu zen, Nafarroako txapeldun izan ondotik

A.A.

Aurtengo Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketan Berriozar mutiletan eta Sakana nesketan egin dira kategoria guzietako txapelen jabe. Bi berrikuntza nagusi izan ditu aurtengo txapelketak: mutiletan, azken urteetan txapel guztiak eskuratu zituen Lesakako Beti Gaztek ez zuen parte hartu. Bertzetik, nesketan, Berako Gure Txokoak taldea plazaratu zuen. 1994an, Nafarroako txapeldun eta Euskadiko txapelketan hirugarren izan ondotik, desagertu zen Berako nesken sokatira taldea. Orain, 15-16 urteko neskek osatzen dute taldearen bizkarrezurra eta orduko bizpahiru tiralari arituekin osatu dituzte goma gainean aritu diren zortzikoteak.

Ez dute tiraldirik irabaztea lortu, baina Burlataren kontra egindako bizpahiru tiraldietan soka bereganatzeko punttuan izan ziren. Baina, esperientzia ezak bere kontra jokatu zuen eta ez zuten garaipenik eskuratu. Halere, gaia badutela erakutsi dute Berako neska gazteek eta horrela segituz gero, abudo etorriko dira garaipenak ere.



ARGAZKIA: ATOR

**Gure Txokoako neskak Berriozarren.**

| GURE TXOKOA NESKEN SOKATIRA TALDEA | |
|---|---|
| Maite TELLETXEA MARTIARENA | BERA |
| Ainhoa LANZ ORTEGO | BERA |
| Amaia IRIARTE IBAÑEZ | BERA |
| Maitane ERDOZAIN IBARRA | BERA |
| Leire PORTU TELLETXEA | LESAKA |
| Garazi ANDUEZA OSTOLAITZ | BERA |
| Belen GUERRA IRIGOIEN | IGANTZI |
| Amaia ESPINOSA MARTINEZ | BERA |
| Jone ZELAIETA LAZKANO | BERA |
| Txaro ZUBIETA ERKIZIA | BERA |
| Saioa BALEZTENA RUDY | BERA |
| Isabel BERRUETA | BERA |
| Entrenatzaileak: Bixente GOIA, Patxi PIKABEA eta Joseba SUSPERREGI | |




**Patxi PIKABEA** *Entrenatzailea*

### *"Neskak gogoz daude eta heldu den urtean ere aterako da taldea"*

**Nola ikusi duzu taldea txapelketan?**
Lan polita egin dute. Kontuan hartuz neska gazteak direla eta entrenatzen denbora gutti daramagula ongi aritu dira. Entrenamendu gehixeagorekin oraindik itxura hobea emanen dugu.

**Nafarroako txapelketa akaututa, lanean segituko duzue?**
Astean pare bat egunez entrenatzeko gelditu gara. Uztail hasieran Beran Kirol Eguna eginen da eta Herri Kirol Federaziotik ere udan erakustaldi batzuk egiteko deitu digute, beraz lanean segituko dugu. Heldu den urteari begira, berriz ere Nafarroako txapelketan parte hartzeko gogoz daude neska gazteak. Bertze batzuk animatzen badira ere, ongi hartuko ditugu.

ATLETISMOA

# Doneztebeko Herri Lasterketa ekainaren 26an eginen da

ttipi-ttapa

Doneztebeko Udalak herriko kirol elkarteei udal instalazioak erabiltzeagatik kobratzeko erabakia bertan behera utzi ondotik, Erreka kirol elkarteko zuzendaritza batzordeak urtero egiten diren jarduerekin aitzinera segitzea erabaki du. Horrela, Erreka kirol elkarteak Herri Krosaren 27. edizioa antolatu du. Ekainaren 26an burutuko da laisterketa. Izen ematea egun berean eginen da. Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etan aterako dira. Jubenilak, seniorrak eta beteranoak, 11:30etan. Aurrebenjamin eta benjamin mailako neska-mutikoek 200 metroko ibilbidea osatu beharko dute, alebinek 500 metrokoa, infantilek kilometro batekoa, jubenilek eta senior mailako emakumeek 4 kilometrokoa eta gizonezko senior eta beteranoek 8 kilometrokoa. Gizonezkoen irabazleak 120 euroko saria izanen du, bigarrenak 90 euro, hirugarrenak 60 euro, laugarrenak 45 euro eta bosgarrenak 30 euro. Emakumeetan, irabazleak 60 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 45 euro eta hirugarrenak 30 euro.

# AGENDA egunez egun

**MENDI ATERALDIAK**

**ELIZONDO**

**Ekainaren 19an** Baztan herriz herri ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**SUNBILLA**

**Ekainaren 18 eta 19an** Panticosatik Infiernosera (3.074 m.) igoko dira Ulibeltzak kirol taldeko mendizaleak.

**BIZIKLETA ATERALDIAK**

**SUNBILLA**

**Ekainaren 25ean** Sunbilla-Mirador-Elizondo-Otsondo-Lizaieta-Sunbilla ibilbidea eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

**BESTAK**

**ARIZKUN**

**Ekainaren 23tik 26ra** San Juan bestak. Xehetasunak 20. orrian.

**SALDIAS**

**Ekainaren 23tik 26ra** San Juan bestak. Xehetasunak 15. orrian.

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 28tik uztailaren 3ra** San Pedro bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**ERRATZU**

**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra** San Pedro bestak. Xehetasunak 21. orrian.

**FERIAK**

**SERA**

**Ekainaren 25ean** Ekobera 1. Azoka Ekologikoa, 10:00etatik 20:00etara.

**GAUPASAK**

**ZUGARRAMURDI**

**Ekainaren 18an** gaupasa. Musika aldetik «Txakurrak», Xabaltx kantaria eta «Jalisko Band» arituko dira. Antzerkia ere izanen da.

## JAKIN BEHARREKOAK

# Oporrak kontratatzean aseguruei buruz informatzeko aholkua

Bidaiaren ezustekoei aurre egiteko modua da Iracheren ustez

Eritasunen bat, ekipaia ebastea edo zurmioa okertzea bezalako ezustekoak ametsgaizto bihurtzen ahal dira gure bidaia prestatzerakoan egoera horietakoren bat gerta zitekeela ez badugu kontuan hartu. Ez da ezkorra izan beharrik: bakar-bakarrik bidaia bat kontratatzerako orduan kontuan hartu behar dugu aitzinetik iragarri ezin diren hainbat egoera aseguratzeko aukera badela.



ARTXIBOKOA

**Oporretaz gozatzeko, bidaiatu baino lehen edo bidaian zehar gertatzen ahal diren ezustekoak estaltzen dituzten aseguruei buruz informatu.**

Bidai-aseguruek orokorrean ekipaia galtzea, istripu pertsonalak, eritasunak eta ardura zibila estaltzen dute. Kontsumitzaileak aunitz ordaindu behar ez badu ere (10 eta 100 euro artean), asegurua ongi probestu nahi bada, egin behar dugun bidaiara egokitzea komeni da.

Adibidez, Europar Batasuneko herrialdeetan ez dugu larrialdiko osasun asistentziaren beharrik, nazioarteko hitzarmenek hori segurtatzen baitute. Baina bertze zenbait herrialdetan, kontsumitzaileak ordaindu behar du gastu hori eta horrelakoetan komenigarria izaten ahal da aseguruak hori estaltzea. Bidai-asegurua interesgarria izan daiteke atzerrian egonaldi luzea egin behar dugunean (hizkuntz ikastaroak, negozioak...) edo hegaldien atzerapenak edo garraiobideekin arazoak arruntak diren herrialdeetan. Komenigarria da ikustea gure etxebizitza- edo bizitza-aseguruak objektu pertsonalak ebastea edo heriotza gertatzen denean herriratze-gastuak estaliak izatea, adibidez. Zenbait kasutan, bidaiarekin batera, bidaiko asistentzia-asegurua eskaintzen zaio kontsumitzaileari, osasun laguntzarekin, irteera atzeratzeagatik kalteordainekin, galdutako edo hondatutako ekipaiaren babesarekin... gain kosturik gabe. Baina ez dira guziz osatuak izaten, eta guttieneko kobertura besterik ez dute eskaintzen. Bidaia kontratatzerakoan, asegurua duen edo ez informatzea komeni da, eta asegururik ez duenean, aseguru mota hauei buruzko informazioa eskatzea, zein ezusteko estaltzen dituen eta zer prezio duen jakiteko.

**Irache Kontsumitzaile Elkartea**

## LIBURUAK




*Hartzak Pirinioetan XXI. mendean*

**Miguel Mari ELOSEGI**

*PAMIELA, 2005*

Joseba Azkarragarekin batera, 2004ko Juan Zelaia Saria irabazi ondotik, Migel Mari Elosegi leitzarraren saiakera argitaratu du Pamielak, Upaingoa sailaren barnean. Milaka urtez gizakia eta hartza elkarrekin bizi izan dira etengabeko lehian, baina gizakiak ezarritako presioari eutsi ezinik, altxor natural hau desagertzear da Pirinioetatik. Saiakera honetan hartzak jasan duen atzerakadaren arrazoiak aztertzen ditu Elosegik, baita gizartean, abeltzain, ehiztari eta abarren artean hartzarekiko duten jarrera ere. Era berean, eta kontserbatu ahal izateko ezinbestekoa izanik, gisa honetako animaliek sor ditzaketen eragozpenak eta horiei aurrea hartzeko neurriak ezagutarazten dira. Urrutixeago iritsi nahirik, azkenik, etorkizunean altxor natural hau kontserbatzeko bidea ere proposatzen du saiakera honetan Elosegik. Aurretik beste hainbat idazlan argitaratu ditu.

# e g i t a r a u a

ekainak 17 ostirala

"POG MO THON"

00:30

ekainak 18 larunbata

# La Pulquería

+ La Lengua de Trapo

00:00

12€ + kontsumizioa

DENBORALDI AMAIERA

uztailak 22/23/24

## elizondokobestak2005*

22ostirala musikazuzenean
23larunbata miguelangelyelmariachidelacantina
24igandea technoravegaua




2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€+kontsumizioa | Ostiralero sarrera dohainik

E l i z o n d o ( N a f a r r o a )

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.


**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak


## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**ERRATZU.** Pisua salgai. Hiru logela, komunak, egongela, sukaldea eta trasteroa. ☎ 659 471544.

**BERA.** Pisua salgai Eztegara pasealekuan. ☎ 649 436334.

**LEITZA.** 180 m²ko hiru solairu dituen baserria salgai, 62.000 m²ko lur eremuarekin. ☎ 600 007185 (goiz, eguerdi eta iluntzean).

**DONEZTEBE.** Estreinatu gabeko apartamentua salgai, herri erdian, bi logela, sukalde-jangela, bainua, terraza eta igogailua. ☎ 948 451945 (gauez).

**BERA.** Pisua salgai, kiroldegi ondoan. Sukaldea eta bainua berrituak, egongela, 3 logela eta trasteroa. Bi balkoi. Nahi bada, garajea ere aukeran. ☎ 661 931727.

## ETXEBIZITZAK
### 102 Erosi

**Baztan-Bidasoan** borda erosiko nuke, ura eta argiarekin. ☎ 615 744369.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**LESAKA-BERA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 615 744369.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**ELIZONDO.** Herri erdian bajera edo lokal komertziala salgai. Almazenerako ere balio du. Argia eta urarekin. ☎ 636 858850.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Taberna traspasatzen da. Sukalde berritua, terraza eta MNP. Erraztasunak ematen dira. ☎ 699 361194.

**BERA.** Garajea errentan ematen da, Berako Posta etxe ondoan. ☎ 948 630881 (iluntabarretan).


**ADOS**
• ELIZONDO. -2. eskuko pisuak salgai. -Egoera hagitz onean dagoen apartamentua salgai. -1.100 m² dituen famili bakarreko etxea salgai.
• DONEZTEBE. -Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. -Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan ematek. -Eraikitzen ari diren azken pisua salgai.
• BERA. -Pisu pare bat salgai. -Terrenoak ematen dira.
• BAZTAN. -Eraikitzen ari diren azkeneko 2 apartamentu salgai. -Hainbat lur eremu eraikigarri salgai.
• ELGORRIAGA. Eraiki behar diren adosatuak salgai. Informa zaitez.
BAZTAN-BIDASOAN baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580706
www.ados-inmobiliaria.com


## GARAJEAK/LOKALAK
### 110 Errentan hartu

**Bajera bat** errentan hartu nahi dut, autokarabana bat sartzeko. Zabalera: 2,20 m. Altuera 3,10 m. Luzera: 5,60 m. ☎ 646 309864.

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Salgai

**LESAKA.** Nabaz auzoan 7.400 m²ko lur-eremua salgai, bi etxe egiteko aukerarekin. ☎ 618 962596.

**LEITZA.** Basakabi ondoan lur eremua salgai. Sarbide onarekin. ☎ 699 361194.

**LESAKA.** Lurra salgai bi etxe egiteko. Herri ondoan, bistak herrira. ☎ 948 637934 edo 650 259605.

## LANA
### 301 Eskariak

**Neska** eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 646 287316.

**Neska** eskaintzen da haurrak zaintzeko edo ostatuan platerak garbitzeko. ☎ 677 283312.

**ELIZONDO.** 16 urteko neska batek uztaila eta abuztuan haurrak zainduko lituzke. ☎ 948 452258.

**Neska bat** eskaintzen da etxeko lanak egiteko edota haurrak eta zaharrak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 610 402190 (Dolores).

**Neska** euskaldun gazte batek haurrak zainduko lituzke udan ordu batzuz egunean. ☎ 628 572260.


**BULDAIN INMOBILIARIA**
**LEITZAN**
• Preziooa: 190.303,63 €
• Preziooa: 254.445 €
☎ 948 510 534 telefonoa


## LANA
### 302 Eskaintzak

**BERA.** Jatetxe batean sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 650 831392.

**Frantses** pixka bat dakien mutila behar da udan lan egiteko. ☎ 948 631100.

**Pertsona bat** behar dut etxeko lanak eta lorezaintza lanak egiteko. Ongi ordainduko da. ☎ 657 467289 (Estefania).

**Editorial batek** etxetik lan egiteko 50 kolaboratzaile behar ditu Nafarroan. Informazio zehatza eta doan 371 Postakutxan, 06800 Merida.

**ETXALAR.** Sukalde laguntzailea behar da, esperientziarekin. ☎ 948 635000.

**LEITZA-ARESO.** Mutil gazteak behar dira aluminio-aroztegian lan egiteko. Hobe esperientzia zerbait baldin badute, baina ez da nahitaezkoa. ☎ 948 510711.

**LESAKA.** Atxaspi ostatuan zerbitzari bat behar dugu, udan lanean aritzeko. ☎ 948 637536.

**IRUÑA.** Gozotegi batean lan egiteko dendaria behar da. ☎ 629 424577.

**Gidariak** Lanpostu libreak: Iruña, udaletxetan. Astean


**ARANTZA Zurgindegia**
Oshña auzoa · 948 634 068

**Lan bila zabiltza?**

LAN ESKAINTZA
OSASUNBIDEA
Beta behar da:
- 126 erizain.
- 15 fisioterapeuta.
- 14 langile sozial.
- 16 laborategiko teknikari.
- 14 Irgi-teknikari.
- 65 erizain-laguntzaile.
- 57 zaintzaile.
- 37 zeladore.
SUKALDE LAGUNTZAILEA KAMAREROA
- Lanpostu finkoak
- Ordutegiak: betetik 15etara

LAN ESKAINTZA
GARBITZAILEAK
Lanpostu finkoak:
- Eraikin publikoak
- Ikastetxeak
- Ospitalak
Soldata: 900 € Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00
PEOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA
- Igeltseroak
- Elektrizistak
- Iturginak Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

35 ordu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak.** Bete behar da: haur zaindariak, hezitzaileak. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Sukaldelaguntzaileak**, kamareroak. Lanpostu finkoak: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Lanpostu libreak: atezain, harreragile, lorezainak erakunde publikoetan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea, Udaletxeak.** Derrioz, Fitero, Burlata, Berrioplano, Iruña. Administrari laguntzaileak behar dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak** eta ofizioko langileak: Lanpostu finkoak: igeltseroak, elektrizistak, iturginak erakunde publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera, 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak eraikin publikoetan, ikastetxetan, ospitaletan. 900 euroko soldata. Astelehenetik ortziralera 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Laborategia.** Teknikariak, laguntzaileak, zeladoreak, klinika laguntzaileak. Lanpostu libreak: ospitalak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea.** Bete behar du: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 izpi-teknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Erresidentzietan lan egin.** Hirugarren adineko zentroetan, ospital publikoetan zeladore postuan, erizain laguntzaileak, fisioterapeutak, pintoreak. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.


ADOS BAZTAN
ZERBITZU ANITZAK
• IGELTSEROA
• ZURGINA
• FONTANEROA
• ELEKTRIZISTA
• PINTOREA
Behar duzun gremioen koordinazio guztia daukagu.
ELIZONDO • Santiago 47 • 948 580705
DONEZTEBE • Santa Luzia Plaza
Juanotenea etxea • 948 451341

YUNNAN
948 07 82 59

SAMPI ARAGON
ZOANSA
Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

TALLERES SANTESTEBAN
✆ 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

MENDAUR MOTOR
DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN

BOAN
TAILERRA
948 630 623 BERA

GANIX
Tailerra
· Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
· FIAT zerbitzua
Irulandera, 9 · 948 630 669
BERA

BIKAIN





Obrako ofiziala behar da Baztan-Bidasoan lan egiteko.
Lan baldintza onak
✆ 652 764613



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAk

**EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTU FINKO BAT OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA**

**BALDINTZAK**
- Unibertsitateko erdi mailako titulazioa izatea.
- EGA edo titulu baliokideren bat izatea.
- Ibilgailuak gidatzeko baimena eta ibilgailua izatea.

**OHARRAK**
- Eskaerak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bulegoan (Arantzako Herriko Etxean) aurkeztu behar dira, ekainaren 27ko 14:00ak baino lehen.
- Deialdiaren oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 62. zenbakian, maiatzaren 25ekoan, argitaratu ziren, eta internet bidez ikus daitezke (www.cfnavarra.es).
- Oposizioaldia 2005eko urrian hasiko da.
- Informazio gehiago 948634125 telefonora deituta edo bortzirinak@euskalnet.net helbidera idatzita.

Arantzan, 2005eko maiatzaren 25ean
Lehendakaria, Vicente Arotzena Biurrarena.

ETXALARKO UDALA

**Administrari-ofizial oposizio-lehiaketa bidez aldi baterako eta lanaldi erdian hartzeko deialdia**

**Baldintzak:** Deialdian ezarritakoak.
**Eskaeren aurkezpena:** Udaleko idazkaritzan.
**Aurkezteko epea:** NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunetik 30 egun naturaleko epean azken eguneko hamabortzak arte. Egun hori baliogabea edo larunbata bada, hurrengo egun baliodunean bukatuko da epea.
Deialdia interesatuen esku egonen da Idazkaritzan.

Etxalarren, 2005eko maiatzaren 30ean.
ALKATEA, Miguel Mari Irigoien Sanzberro


## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Gas-Gas 280 TXT Pro** trialeko motoa salgai. Oso gutxi ibilia. Prezio negoziagarria. ☎ 948 450644 edo 646 762383.

**Lada Niva** salgai. Egoera onean. ☎ 606 925288.

**Citroen Xsara** 2.0 HDI autoa salgai, 90 zaldikoa, 3 urte, 40.000km, garajean egona. ☎ 630 136863.

**Renault Clio** 1.9 D salgai, 90 cv. Egoera onean, hobe ikustea. ☎ 667 046452.

**Peugeot 306** 1.6 autoa salgai, 80.000km., NA-AU. Egoera onean, 4.200 km. ☎ 686 079282.

## ANIMALIAK
### 601 Emateko

**Urte terdiko zakurra** opari emateko, arra, samoyedo eta pointer nahasketa, beltza, hagitz polita eta ona opari emanen nuke, ezin zainduagatik. ☎ 690 046681.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Poniak** salgai, beren umeekin. ☎ 610 221528.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Belarra** biltzeko piruleta (rastrillo hilerador) erosi nahi nuke. ☎ 680 592750.

**Komedoreko armario** bat eta mahai bat salgai, antigualekoak. Mahaia 6 lagunentzat etxia, 10 lagunentzat erekia. ☎ 948 450321.

**Egongela eta bi logela** salgai, osoak eta armario handikoak. Logela bat matrimoniokoa, 1,50eko ohatzearekin eta bertzea gazteena, bi ohatzerekin. Berriak daude. ☎ 658 726733.




ORDOKI ALTZARIAK
ESTILO UGARIKO MOBLEAK
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak



LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA





ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

# I. AZOKA EKOLOGIKOA
# I. FERIA ECOLOGICA / I^ère^ FOIRE BIO

# ekobera 2005

**eguna: ekainaren 25a / fecha: 25 de junio /date: 25 juin**
**tokia / lugar / lieu: BERA Nafarroa**



laguntzaileak / patrocinadores / partenaires:

Diario de Noticias
Banesto
Caja Laboral Euskadiko Kutxa
txarandaña
948 630 589
ehne
udana
Ubidea
BBVA
UAGN
BURUNDESA
"la Caixa"

antolatzaileak
organizadores
organizateurs:

BERAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA
CPAEN NNPEK
BERTIZ
PARTZUERGO TURISTIKOA
CONSORCIO TURÍSTICO
CEDERNA GARALUR
HORMIGONES ARKAITZA S.A.